MONDRAGON UNIBERTSITATEA
HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIOA

Gradu Bukaerako Lana (GBL)

Amaia Fuertes eta Leire Marimon

Euskal Wikilarien Kultur Elkartea

Wikipediako edukiak ikus-entzunezkoen bitartez

2018/07/09

IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIOA. 20XX

Wikipediako edukiak ikus-entzunezkoen bitartez

Amaia Fuertes eta Leire Marimon
Fakultateko tutorea: Txema Egaña
Enpresako begiralea: Aiora Mujika
Enpresa: Euskal Wikilarien Kultur Elkartea
2018-07-09

ABSTRACT

Lan honen bidez hobeto ezagutu nahi izan da Wikipedian bideoak txertatzeko prozesua, ikus-entzunezko formatu egokienak zeintzuk diren ere aztertu da, eta bideoak DBHko ikasleentzat ikasteko tresna baliagarriak diren ala ez ere analizatu da. Aurrera eraman den proiektua *Kalitatezko 1.000 artikulu 12-16 urteko ikasleentzat* izeneko proiektuaren barnean kokatzen da.

Helburua da kultura eta jakintza euskaldunen eskura jartzea multimediaren bitartez, bereziki euskal ikasleentzat. Hortaz, oinarri pedagogikoa eta didaktikoa duten ikus-entzunezko bideoak sortu eta aztertu dira.

Proiektua eta ikerketa fasea egiteko, inkesta bat luzatu zaie Gasteizko Armentia ikastolako ikasleei jakiteko zein gai duten gustuko bideoekin lantzeko. Geroago sortu diren bideoak 1. eta 4. DBH mailako ikasleekin testatu dira, ondoren edukiaren inguruko galdetegi bat eginez eta ikasleen pertzepzioak ezagutzeko “focus group”-ak egin dira, jasotako testigantzen ekarpenak dokumentura ekarriz.

Bestetik, elkarrizketa sakon bat egin da; Euskal Wikilarien Elkarteko kidea eta Bertsomate bideoen aditua den Galder Gonzalezi, hain zuzen.

Honekin guztiarekin, lortu diren emaitzen artean hezkuntzarako diren bideoen onurak hobetu ulertu dira eta hezkuntza bideoen formatu egokia animazioa dela frogatu da, ikasle pertzepzioen eta edukien inguruko galdetegien bidez.

En el siguiente trabajo se da a conocer el proceso para la inclusión de vídeos en Wikipedia. También se ha investigado cuáles son los formatos más adecuados para éstos, además de analizar el uso de los vídeos educativos para alumnos de la ESO. El trabajo realizado forma parte del proyecto “Kalitatezko 1.000 artikulu 12-16 urteko ikasleentzat”.

El objetivo de este proyecto es facilitar el alcance de la cultura y conocimientos mediante la multimedia, en especial a los alumnos vascos. Con esta finalidad, se analizan y se crean vídeos audiovisuales didácticos y pedagógicos.

Con el fin de realizar tanto el proyecto como la investigación, los alumnos de Armentia ikastola de Vitoria-Gasteiz han rellenado un cuestionario para elegir la temática de dichos vídeos. Más adelante, se ha llevado a cabo la proyección de los vídeos creados ante alumnos de 1º y 4º de la ESO, para poder realizar un testeo. Finalmente, se ha realizado un “focus group” con el cual se han recogido las percepciones de los alumnos, recogidas en este documento.

Por otro lado, se ha llevado a cabo una entrevista con Galder Gonzalez, miembro de la asociación vasca de los Wikipedistas y entendido en los vídeos de “Bertsomate”.

Mediante el cuestionario sobre el temario y las percepciones de los alumnos se demuestran los beneficios del uso de vídeos educativos en la enseñanza y el formato más adecuado según ellos para éstos, que en este caso es la animación.

The following report studies how videos are uploaded on Wikipedia as well as how they should be used for educational purposes and which is the most adequate format to be adopted. All this research is included on the upcoming “Kalitatezko 1.000 artikulu 12-16 urteko ikasleentzat” project.

By using multimedia, this project aims to facilitate the access to culture to the young basque generations. To this end, didactic and pedagogical videos are created and deeply analyzed.

To reach the goal of this investigation and to narrow down the topics of the videos to be created, students of Armentia Ikastola in Vitoria-Gasteiz have fulfilled a questionnaire. Following the survey and in order to get a feedback the videos have been shown to students of 1st and 4rd Degrees of Secondary School.

Moreover an interview has been carried out to Galder Gonzalez, member of the Basque Association of Wikipedia writers and a knowledgeable member of “Bertsomate”. Finally, and for the purpose of receiving students insights, a focus group has been created.

Thanks to the surveys and feedback received by the pupils we come to the conclusion that videos do actually help students learn more easily, being animation the most successful method to create such multimedia content.

AURKIBIDEA

1. HELBURUAK **9**

2. IKERKETA-GALDERAK **10**

3. PROIEKTUAREN INTERESA, LANAREN JUSTIFIKAZIOA 11

4. MARKO TEORIKOA 13

4.1. Wikipedia 13

4.1.1. Wikipediaren erabilera hezkuntzan 18

4.1.1.1. Fidagarritasuna 21

4.1.1.2. Irakasleen papera 22

4.2. Euskarazko Wikipedia 23

4.3. Bideoak hezkuntzan 25

4.3.1. Hezkuntzarako bideoen ezaugarriak 28

4.3.2. Hezkuntzarako bideoen formatua 32

4.3.3. Hezkuntzako bideoen erabilgarritasuna frogatzeko galdetegiak 34

5. METODOLOGIA 36

5.1. Ikerketaren diseinua 36

5.1.1. Inkesta 38

5.1.2. Bideoak osatzea 38

5.1.3. Bideo edukiaren inguruko galdetegia 40

5.1.4. Focus Group 41

5.1.5. Elkarrizketa sakona 42

6. EMAITZAK 43

6.1. Ikasleen ustez zein dira bideo formaturik egokienak bideoekin ikasteko? 43

6.1.1. Hezkuntza bideo formaturik egokiena ikasleen arabera, bideoak ikusi baino lehen 43

6.1.2. Hezkuntza bideo formaturik egokiena aurre-testeoan 43

6.1.3. Hezkuntza bideo formaturik egokiena Armentia ikastolako ikasleen arabera bideoak ikusi ondoren 44

6.2. Zeintzuk dira ikasleek Wikipedian landu nahi dituzten ikasgaiak bideoekin? 45

6.3. Ikus-entzunezkoek hezkuntza prozesuan aldaketak egin dituzte? 45

6.3.1. Ikus-entzunezkoek eragindako aldaketak Armentiako ikasleen arabera 46

6.4. Ikasleen ustez bideoek laguntzen dute Wikipediako gai bat hobeto ikasten? 46

6.4.1. Bideoak Wikipediako gaiak hobeto ikasteko Armentia ikastolako ikasleen arabera, bideoak ikusi ondoren 47

6.4.2. Bideoak Wikipediako gaiak hobeto ikasteko Armentia ikastolako ikasleen emaitzen arabera, edukien inguruko galdetegia bete ondoren 47

6.5. Zer nolako ezaugarriak izan behar ditu bideo batek Wikipediako edukiak jasotzeko?50

6.5.1. Zer nolako ezaugarriak izan behar ditu bideo batek Wikipediako edukiak jasotzeko Armentiako ikasleen arabera? 50

7. ONDORIOAK 51

7.1. Lehenengo ikerketa-galderaren inguruko ondorioak: Ikasleen ustez zein dira bideo formaturik egokienak bideoen bidez ikasteko? 51

7.2. Bigarren ikerketa-galderaren inguruko ondorioak: Zeintzuk dira ikasleek Wikipedian landu nahi dituzten ikasgaiak bideoen bidez? 51

7.3. Hirugarren ikerketa-galderaren inguruko ondorioak: Ikus-entzunezkoek hezkuntza prozesuan aldaketak egin dituzte? 52

7.4. Laugarren ikerketa-galderaren inguruko ondorioak: Ikasleen ustez bideoek laguntzen dute Wikipediako gai bat hobeto ikasten? 53

7.5. Bosgarren ikerketa-galderaren inguruko ondorioak: Zein dira hezkuntzan bideoak erabiltzearen onurak? 53

7.6. Seigarren ikerketa-galderaren inguruko ondorioak: Zer nolako ezaugarriak izan behar ditu bideo batek Wikipediako edukiak jasotzeko? 54

7.7. Ondorio praktikoak eta erronkak 55

7.8. Horrelako proiektuak garatzeko mugak: irudien lizentzia, irudien mugak, informazio aldakorraren galera. 56

8. ERANSKINAK **57**

8.1. A eranskina. Ikasleei luzatutako inkesta. 57

8.2. B eranskina. Ikasleek egindako bideo edukien inguruko galdetegia. 58

9. BIBLIOGRAFIA 60

1. HELBURUAK

Gradu Bukaerako lan honen helburua da ulertzea nola ekoiztu behar diren bideoak Wikipedian eta ezagutzea ikasleen ikasketa prozesuetan zeintzuk diren Wikipedian bideoa erabiltzearen onurak euren ikuspuntuaren arabera. Horretarako, ezagutu nahi izan da zein diren ikasleek gogokoen dituzten bideo formatuak, eta Wikipediako bideo batek izan behar dituen ezaugarriak. Ezagutu nahi izan da ere ikasleek gogoko dituzten gaiak Wikipedian bideo bidez ikasteko. Era berean, froga bat egin da hobeto ezagutzeko ikasleek edukiak nola jaso dituzten hiru bideoak ikusi ondoren.

Beste helburuetako bat izan da frogatzea hezkuntza bideoen formatu egokiena zein den, horretarako ikertutako hiru bideo formatu aukeratu dira; irakasle baten azalpen bideoa, animazioa eta bideo pilulak. Horretarako, ikus-entzunezko sorkuntzen inguruan ikasleen pertzepzioak zeintzuk diren eta horien inklusioa hezkuntzan nola ikusi duten aztertu da.

Azken helburua ulermen mailaren diferentzia ekiditean datza. Sortu behar izan dira adin tarte desberdinetara egokituko diren ikus-entzunezkoak. Horretarako 1. eta 4. DBH mailako ikasleekin testatu dira sortutako bideoak, DBH hasieran eta DBH amaieran aurkitzen diren mailak direlako.

2. IKERKETA-GALDERAK

Aztertu da ikasleentzako baliagarriak suertatuko diren hezkuntza bideoak, bai formatu aldetik, baita edukien aldetik ere. Gainera, Wikipediaren inguruko azterketa bat burutu da eta gaur egun entziklopediarekiko dagoen estigma alde batera utzi nahi izan da. Horretarako ikerketa-galdera hauek prestatu dira:

1. Ikasleen ustez zein dira bideo formaturik egokienak bideoen bidez ikasteko?
2. Zeintzuk dira ikasleek Wikipedian landu nahi dituzten ikasgaiak bideoen bidez?
3. Zein da ikasleek gustukoen duten bideo formatua?
4. Ikasleen ustez bideoek laguntzen dute Wikipediako gai bat hobeto ikasten?
5. Zein dira hezkuntzan bideoak erabiltzearen onurak?
6. Zer nolako ezaugarriak izan behar ditu bideo batek Wikipediako edukiak jasotzeko?

3. PROIEKTUAREN INTERESA, LANAREN JUSTIFIKAZIOA

Wikipediako edukiak ikus-entzunezkoen bitartez izeneko proiektua interes handiko proiektua da, inondik ere. Alderdi asko lantzen ditu, baina funtsean aztergaia da jakitea ea hezkuntzarako bideoak ikasketa prozesuan lagungarriak diren.

Gazte euskaldunek haien lanak burutzeko Wikipedia informazio iturri erreferente dute, baina askotan gaztelaniazko Wikipediara jotzen dute informazio bila gero euskarara itzultzeko. Horregatik, euskarazko multimediazko artikuluak sustatu nahi dira Wikipedian ikasle euskaldunentzat euskarazko edukiak gehituz, baliabide gehiago erabilgarri eduki ditzaten.

Euskal Wikilari Kultur Elkarteak *Kalitatezko 1000 artikulu 12-16 urteko ikasleentzat* izeneko proiektua abian jarri du. Landu den proiektu hau horren baitan kokatzen da esperimentu pilotu moduan, eta sortu da Wikipediaren euskal atala ikus-entzunezko materialen bidez osatzeko. Gainera, ikasleek bideoen inguruan dituzten iritzi eta usteak zuzenean jaso dira.

Proiektu hau euskal Wikipedia aberastera dator. Izan ere, proiektu honekin, hain garatuta ez dauden beste hainbat gai landu dira, adibidez, feminismoa. Nolanahi ere, kontuan hartu beharrekoa da proiektu honekin ezin direla hainbat gai landu, edukiak aldakorrak izan daitezkeelako; zientziari dagozkion gaiak, esate baterako.

Proiektuaren berezitasuna trataeran datza, izan ere multimedia formatura ekarri da jasotako informazioa, alegia ikus-entzunezko ekoizpenak sortu dira Wikipedian txertatzeko. Helburua da ekoizpen horiei trataera pedagogikoa ematea, eta aldi berean, entretenigarriak izatea; pilula zuzenak eta motzak.

Horrenbestez, ikasteko baliagarriak izango diren erremintak eskaini zaizkie 12-16 urteko ikasleei, kultur maila handitu dezaten. Informazio luzapenaren egokitasuna egin behar izan da adin tarte desberdinetara ailegatuko den edukia sortuz. 12 eta 16 urte dituzten ikasleek informazioa jasotzeko modu desberdina dutela dirudi; 12 urtekoek era sinpleago batean jasotzen dute; aldiz, 16 urte dituztenek modu landuago batean jasotzen dute.

Gaur egungo paradigma sozio-kulturalean teknologiaren erabilera masiboa agerikoa da. Hezkuntza arloan ere teknologiak pisu handia hartu du. Wikipedian bideo pilula informatiboak ezartzea aldaketa digitalarekin bat egiteko bide bat da, izan ere, aldaketa prozesu honen helburua gazteek informazioa era ezberdin batean jasotzea da.

Proiektuaren hartzaile nagusiak ikasleak dira, horregatik inkesta baten bidez jaso dira haien pertzepzio eta ikuspuntuak bideoen gaia eta formatua aukeratzeko. Irakasleak ere presente egon dira prozesuan, haiek baitira ikasleen erreferenteak; beti ere ikasleak izanda ikerketaren subjektu nagusiak.

4. MARKO TEORIKOA

4.1. Wikipedia

Wikipedia interneten aurkitu daiteken eduki askeko entziklopedia eleanitza da, lankidetzaz editatuta eta interneten argitaratua. Erabilpen askea du, eta etengabe eguneratu, handitu eta zuzentzen da. Edozein erabiltzailek artikuluen edukiak sortu, editatu edo ezabatu ditzake. Munduan hedatuta dago eta 282 hizkuntza inguruko edizioak jasotzen ditu egunero. Wikipediako edukia erabilera librekoa da (guzti-guztia ere ez, salbuespen batzuk daude) lizentzia libreekin argitaratzen delako (Creative Commons Attribution Share-Alike eta GFDL - GNU Free Documentation License - lizentziak) (Wikipedia, 2009).

1990eko hamarkadaren hasieran, Webaren sorkuntza eta garapenarekin bat eginez, 2000.urtean Nupedia entziklopedia askea sortu zuten interneten. Jimmy Wales-en eta Larry Sanger-en ekimena izan zen. Edonork begiratu zezakeen entziklopedia sortu zuten, adituek modu formalean mantendutako edukiz betez.

Nupedia garatzen zen bitartean Wikipedia proiektua paraleloki sortu zuten. Honetan (Wikipedian) jasotako jatorrizko edukia Nupedian txertatzea zuten helburu. Entziklopediaren filosofia aldatu zenez eta informazioa Nupedian txertatzea ez zutenez onartu Wikipediak bere bidea jarraitu zuen eta jasotako informazioa bertan geratu zen. 2001ean edonork idazteko eta editatzeko aukera irekia eman zuen Wikipediak, eta 2003an Nupedia desagertu zen.

Informazio berria berehala jasotzeak aukera ematen duen mekanismoa Wiki deitzen da. Jatorrizko hitzaren esanahia “azkar” da. 1994ean Ward Cunnighgam-ek garatutako teknologia berrian sortu zen ordenagailu-programetako diseinu patroi memoriaren sistemarekin. Wiki teknologia patroiaren nukleoa MediaWiki deitzen da.

Beraz, edizio askeko entziklopedia sortu zuten, edozein erabiltzailek informazioa gehitu, editatu eta ezabatu zezakeelarik. Wikipediak sarean dagoen isileko erregistroa du, eta ezagutzaren sorkuntza eta banaketaren baliabide nagusia da Interneten.

Jorge Calle-k, (2016) argitaratutako artikuluan hurrengo definizioa eman zion Wikipediari: “La *Wikipedia* se define a sí misma como "la enciclopedia libre que todos pueden editar" y recibe de media más de 50 consultas por segundo”.

Benito Amat-en (2007) hitzetan, Wikipediarekin bat doan lemak interpretazio bikoitza du:

> En primer lugar, la Wikipedia representa una versión propia de la democratización de contenidos de internet. Wikipedia presenta artículos de tema, redacción y hasta enmienda libre un momento después de que se haya elaborado. En segundo lugar, emplea un software comunitario, abierto por los diseños y el mantenimiento del sistema (Benito Amat, 2007:119).

Edukien sorkuntza eta banaketa oso eztabaidatua izan da. Izan ere, Wikipediak duen askatasunaren barnean hainbat liskar, mania, eta bandalismo informatiko suertatu zaizkio. Wikipediaren oinarria artikuluen zuzenketaren eta hobekuntzaren suposizioan dago, akatsen aurrean zuzenketa egingo denaren oinarrian. Beraz, Wikipediaren edizioa aske demokratikoa da, gero eta kontrol gehiago duena baina aldi berean fidagarritasunean eragina duena.

Artikuluek ez dute sinadurarik, ezezagun giza idatzi eta editatu daitezke. Artikulu umezurtzak eta itsuak daude Wikipedian. Artikulu umezurtzak inongo artikuluri lotuta ez dauden artikuluak dira. Artikulu guztiak egile ezezaguna edo ezaguna izan behar dute. Bestetik, inora joaten ez den artikulua itsua da.

Bestalde, Wikipediako sarrerek dituzten elementuei dagokionez, orri bakoitzak 4 elementu ditu:

1) Artikulua, 2) Edukien eztabaida, 3) Kodea eta 4) Historia

Lau elementuen azterketa eginez, edukien eztabaida testuan oharrak eta iruzkinak idazteko aukera ematen du. Bestetik, kodeak akatsak zuzentzeko aukera ematen du, eta historiak artikuluaren inklusioa eta egindako aldaketa guztiak erregistratzen ditu. Benito Amat-ek egindako ikerketan aitortzen du:

> La Wikipedia se puede considerar otro ejemplo de voluntarismo útil. Tiene un progresivo refinamiento de sus controles, la creciente atención de los medios académicos y científicos, y la tendencia que sus estadísticas revelan podrían dirigirla hacia un status de referencia obligada (Benito Amat, 2007:121).

Wikipediak egunero jasotzen dituen edukiak eta eguneratze guztiak sostengatzen dituen sistema izanda, interneten on-line dauden beste entziklopedia guztien artean maila altuena du (Dunican, 2011).

Izan ere, 1.413.058 artikulu, anexo eta maila ditu eta egunero 400 artikulu baina gehiago sortzen dira, 12.000 hilabete batean. Hori dela eta, Wikipedia mantentzea teknikoen eta administrazioan dauden borondatezko langileen ardura da. Entziklopedia publizitate eta iragarkirik gabekoa izateko dohaintzen bitartez mantentzen da. Wikipedian artikulu bat eskatzeko ez dago inongo eskaera lekurik.

Wikipediak boluntarioz osatutako lan prozesua du. Boluntarioak bi mailatakoak izan daitezke: Elkarteko boluntarioak diren pertsonak eta proiektuetan parte hartzen duten boluntarioak.

Elkartean boluntarioak diren pertsonek elkarteak dituen proiektuak garatzen laguntzen dute. Wikipediak antolatzen dituen hitzaldiak ematen, komunikazio sareak sortzen etab. lan egiten dute. Hau da, edozein elkarteko kide batek egingo lukeen lana. Bestalde, boluntario batek izandako ideia edo proposamena bere kabuz lotzen baldin badu, aurrera eramatearen konpromisoa du Wikipediak.

Wikipedia edo Wikimediako proiektuetan boluntarioak direnak dira Wikilariak. Wikilariak Euskal Herrian, Boluntario Katalunian edota Wikipedistak Gazteleraz; horiek dira Wikipedian artikuluak editatzen dituzten pertsonak, eta euren denbora librea plataformari eskaintzen diotenak.

Bakoitzak nahi duena egin dezake ere, baliteke norbait oso interesatuta egotea Txinako aireportuen inguruko informazioan eta bere denbora dedikatzea Txinako aireportuaren inguruko informazioa biltzeari. Helburua betetzen duen bitartean, informazio librea jartzen du guztion esku (Gonzalez, 2018).

Kolaborazioak dira boluntarioek egiten duten lana. Wikipedia proiektu kolaboratzailea denez, pertsona guztien arteko kolaborazio estrategia aurrera eramatea du oinarri.

Wikipedian artikulu bat publikatzeko jarraitu behar diren irizpideak 3 dira:

1. Edukiak entziklopedikoa izan behar du: garrantzi akademikoa dela medio idazkera entziklopedikoaz osatutako artikuluez betetzen da Wikipedia.

2. Artikulu neutralak izan behar ditu: idazkera entziklopedikoa izan behar duenez neutraltasuna mantendu behar da. Termino eztabaidagarriak eta balorazio adjektiboak ez dira onartuko.

3. Artikuluen eduki guztiak libreak izan behar dira: Wikipediak eskuragarri uzten duen informazioa edozeinek erabiltzeko da, edozein baldintzatan. Horrek eskatzen du material guztia librea izatea eta erreferentziatuta egotea. Lan bibliografikoa izan behar du atzetik.

Ondorioz, 3 irizpide horiek betetzen dituzten artikuluak aurrera aterako lirateke. Kontuan hartu beharko da artikulu batzuk egunero aldatzen direla, eta beste batzuk milaka berrikuspen dituztela eta aldakorrak direla.

Euskal Herria artikulua jende askok begiratu du eta jende askok parte hartu du artikulua hazten. Irango sugandila baten inguruko artikulua agian behin bakarrik ikusi da eta ez du inork aldatu, ez berrikusi (Gonzalez, 2018).

Artikuluak aldakorrak dira eta irizpideak ere aldakorrak izan daitezke. Komunitateak erabakitzen baldin badu irizpide desberdinak jarraitu behar direla etorkizunean aldaketa hori aurrera eramango litzateke. Hala ere, aurretik aipatutako artikuluen hiru oinarriak, alegia, entziklopedikoa izatea, librea izatea eta neutrala izatea, beti mantenduko lirateke.

Bestetik, Wikipediak donazioen bidez funtzionatzen du esklusiboki, ez dauka publizitaterik eta esan bezala 5. webgune bisitatuena da munduan. Donazioak norbanakoak edo fundazioak egin ditzake. Wikipediak ez du zehazki dirua jasotzen, elkarteka banatzen delako.

Wikipedia hezkuntzan erreminta moduan erabilia izan da. Parker eta Chao-k (2007) nabarmendu zuten “Los Wikis son uno de los muchos componentes de la Web 2.0 que podrían utilizarse para mejorar el proceso de aprendizaje”.

Wikipediak pribatutasun absolutua dauka bisitetan. Guztiz librea den edukia ahalbidetzen du eta ondorioz, informazioaren hartzaileak zeintzuk diren ez da gordetzen, ezta informazio horren jarraipena egiten ere. Hala ere, zenbat bisita izaten dituen erregistratzen du. Euskarazko Wikipediak egunero bataz beste 70.000 eta 80.000 bisita

inguru jasotzen ditu kurtsoan zehar. Udan asko jaisten da eta 50.000 ikustaldi erregistratzen dira oporrak diren bitartean.

Bisiten informazioa aztertuz, udan jaitsi diren 30.000 bisita horiek ikasleak direla auteman daiteke. Izan ere, astelehenetik ostiralera artikuluen bisitak larunbat eta igandeetan dauden bisitekin konparatuz, eta kurtso hasieran eta amaieran artikuluen bisitak aztertuz, hezkuntzan Wikipedia erabiltzen dela antzeman daiteke.

Wikipedian badaude artikulu batzuk hezkuntzan erreminta bezala erabilera agerikoa egiten dutenak. Adibidez, eguzki sistema. Ez dakit zenbat helduk bisitatuko duten eguzki sistema artikulua, baina irakasle batek esango dizu irailean ematen dela eskoletan eta artikuluak erregistratutako bisiten goi muga Irailean dela (Gonzalez, 2018).

Wikipediak ikasketa irekiko hainbat asmo betetzen ditu:

a. Oinarrizko konpetentziak jasotzea ahalbidetzen du.
b. Adimen kolektiboan parte hartzen du.
c. Ezagutzen zauri globala isten du.

Hala ere, erreferentzia-lan bezala bere erabilera maila batzuetan ez da gomendatzen (Konieczny, 2007). Hori dela eta, Parker eta Chao-k (2011) 2011an hezkuntza lanen lidergo doktoratuan matrikulatutako 14 ikasleekin Wikipediaren inguruko ikerketa egin zuten.

Helburua Wikipedia hezkuntzan baliabide legitimoa dela frogatzea izan zen. Ikasleak etxeko lanak egiteko Wikipedia erreminta pedagogiko bezala erabiltzean izandako pertzepzioak aztertzean oinarritutako ikerketa da. Ikasleen erantzunak positiboak izan ziren eta Wikipedia eraginkorra dela ondorioztatu zuten. Izan ere, ikasleek ikasteko eta etxeko lanak egiteko erabiltzen duten informazio iturririk eraginkorrena Wikipedia delaren sentsazioa izan zutela aitortu zuten.

Parker eta Chao-ren (2011) mintegia amaitu eta gero, ikertzaileek Wikipediaren plataformaren legitimitatea aztertu zuten. Modu horretan, entziklopedia modu egokian klaseetan erabiltzeko sistema gisa ezarri ahalko zuten, eta era berean, ikasketa esperientzia hobetu. Horrekin, ikertzaileek ikasleen pertzepzioak neurtu zituzten eta aurkitutako informazio guztiarekin Wikipedia orrialdea eguneratu zuten.

Wikipedia “Crowdsourcing”aren bitartez sortutako informazio eta ezagutza iturri handiena da, munduko bisiten arabera bosgarren postua duena sarean (Alexa, 2016).

Wikimediaren eta Wikipediaren etorkizunari buruz eztabaida ugari daude gaur egun (Gonzalez, 2018). Wikimedia fundazioak Wikipediaren mantenua kudeatzen du, baina ez bere edukiak. Ezin da aurresan hartuko duen norabidea. Hala ere, Wikimedia fundazioak badu garatzen ari den estrategia bat gaurtik 2030. urtera arte, eta ari da eztabaidatzen (Gonzalez, 2018).

Wikipedia eta Wikimediak jarraituko dituzten etorkizuneko irizpide finkoak ondorengoak dira:

1. Wikipedia jakintza mota desberdinetara irekitzen jakitea. Jakintza akademikoaz gain, ahozko jakintzara ere.

2. Tradizio akademikorik gabeko herrien jakintza irekitzen jakitea. Publiko desberdinetara irekitzen jakitea; adibidez, Wikipedia barruan dagoen umeentzako esparrua, *txikipedia* proiektua, alegia.

3. Wikipedia agureei irekita egotea.

4. Wikipedia ulertzea proiektu nagusi bezala. (Inguruan badaude multimediagoak diren atalak, Wikiteka, Wikidatan… Proiektu guzti horiei forma ematea.)

5. Euskal gizartean genero oreka edo genero tartea Wikimedian islatzea. Wikimedian dauden biografien artean %7 dira emakumezkoenak. Beste guztiak gizonezkoenak dira. Jakintza islatzeko modu asko daude eta horretan sakondu nahi da.

4.1.1. Wikipediaren erabilera hezkuntzan

Hezitzaileek ikasleentzat era askotako ikasketa prozesu bideak frogatu dituzte. Kontuan hartuz teknologia berrien aurrerapausoa, hezitzaileei ikasketa prozesu bideak erraztu dizkiete. Baina horrek, informazioaren fidagarritasunarekin arretatsuagoak izan beharra eragin du ere (Bender, 2003).

Magdaleno eta Garcia-k (2013) diotenaren arabera, Wikipediak ezagutza libreko bertsioa du oinarri. Entziklopedia hau sarean munduko 5. webgune bisitatuena da eta sarean existitzen den erreferentziazko obrarik nagusiena da.

> Creemos que Wikipedia constituye no sólo un recurso educativo por sus contenidos sino también una poderosa herramienta de aprendizaje. Los cambios en la educación deben correr paralelos a los cambios sociales. Las nuevas generaciones están creciendo en una era en la que los libros escritos ya son anacrónicos. Se hace necesario incluir a la Wikipedia en el proceso de aprendizaje (Magdaleno; Garcia, 2013:15).

Wiki Learning proiektua hezkuntza prozesuan irekitako eredua da Mexikoko hainbat unibertsitateetan (Ricaurte-Quijano, P.; Carli-Álvarez, A., 2016). Proiektua irakasle eta ikasleen artikuluen sorkuntzan eta garapenean oinarrituta dago. 57 irakasleek eta 115 ikasleek inkestak bete zituzten Wikipediaren erabileraren inguruko pertzepzioak transmititzeko.

Wikipedia hezkuntza erreminta bezala erabili zuten, eta inkesta horietatik ateratako ondorioa hurrengoa izan zen:

> Los resultados demostraron que a pesar de que todos son usuarios de Wikipedia, existe un desconocimiento general sobre su funcionamiento, estructura y comunidades, además de cierta desconfianza. Se presenta un desafío para romper el estigma y recuperar el valor de la gestión compartida del conocimiento, el propósito de la enciclopedia y su lugar como producto de la inteligencia colectiva (Ricaurte-Quijano, P.; Carli-Álvarez, A, 2016:61).

Wiki Learning Wikipedia hezkuntza ingurune ireki batean erabiltzea proposatzen duen proiektua da. Honetan ikasketa prozesua irekia, kolaboratzailea eta globala izatea du oinarri. Proposamena hezkuntza eredu berritzaile batetik jaio zen eta Mexikoko Unibertsitate pribatu batean ezarri zuten. Proiektua Wikipediak ekoizten dituen ezagutzekin eraikitzen da, estrategiaren diseinua ez da bakarrik entziklopedian oinarritzen, baizik eta Wikipediaren munduak dituen eremu guztietan.

Nazio-Batuetako 2030 agendak dionaren arabera (2015), ikaskuntza prozesua ezin da mugatu adin maila konkretu batera, herrialde batera, belaunaldi batera edota egoera

konkretu batera. Gizartearen parte izateko garrantzitsua da edozeinek ezagutzak bereganatzeko aukera izatea.

> Es necesario garantizar las condiciones para que todas las personas puedan adquirir los conocimientos y habilidades necesarias para aprovechar las oportunidades y de participar plenamente en la sociedad (Ricaurte, P; Carli-Alvarez, A, 2015).

Egile asko dira Wikipediak hezkuntza prozesuarekin bat egin behar duela ikertu dutenak, eta askotan plataformak izan duen garapen naturala azpimarratzen dutenak. Staub eta Hodel-ek (2016) onartzen dute Wikipedia hezkuntzan garrantzi handiko erreminta dela eta hezkuntza arloan erabiltzea gomendatu dute.

> Es una importante y exitosa herramienta de aprendizaje y recomiendan su uso dentro de entornos educativos, ya que, desde la perspectiva de las competencias, la creación de artículos y la gestión de contenidos se fundamenta en los principios de producción de conocimiento abierto y descentralizado, y refuerza las habilidades de consulta y citación de los alumnos, quienes además aprenden a trabajar en un entorno colaborativo (Magdaleno. A; García, 2013:15).

Wikimedia funtzioa, hezkuntza programa, GLAM (galeria, biblioteka eta fitxategia), Wiki Initiative, hizkuntza desberdinetan garatutako Wikipedia… etab. “Wikipedia como herramienta de aprendizaje” proiektua izandako emaitzak 2014 eta 2015ean frogatu ziren. Izandako eragina maila desberdinetan antzeman zen. Egindako ikerketan Wikipediaren erabilera eta jasotako pertzepzioen ondorioak eta emaitzak jaso zituzten. Lehenengo, 2014eko udan 57 ikasleek inkesta bat bete behar izan zuten Wikipediaren inguruko ezagutzak zeintzuk ziren jakiteko. Ondoren, 2015eko martxoan aurrera eramandako edizio maratoi batean 115 ikasle testatu zituzten. Sortutako inkestaren helburua Wikipediak hezkuntzan lortu dituen abantailak ikasleekin ondorioztatzea izan zen. Emaitzak ondorengoak izan ziren:

1. Teknologia berriak eta irudi digitalak eranstea ikasteko onuragarriak dira.

2. Pentsamendu kritikoa garatzen du informazioaren maneiua eta edukien ikerketa direla medio.

3. Hizkuntza konpetentziak garatzen ditu.

4. Kulturaren inguruko ezagutza handitzen du.

5. Egile eskubideak garatzen ditu kultura askea bermatuz, eta egileen parte-hartzea sustatzen du.

6. Ezagutza librean parte hartzen dute.

7. Komunikazio globala osatzen du.

4.1.1.1. Fidagarritasuna

Wikipedia hezkuntzan beti zalantzan jarri den informazio iturria da (Bender, 2003). Wikipedia edizio irekiko entziklopedia denez, Denning, Horning, Parnas, eta Weinstein-ek (2006) zalantzan jarri zuten Wikipediak duen fidagarritasuna; “Found that people perceived some risks in using Wikipedia” (Denning; Horning; Parnas; Weinstein, 2006). Izan ere, edizio askea denez edozeinek editatu dezakeen informazioa da.

Beste batzuk aldiz, aukera handia ikusten dute artikuluen edizio irekian. Audientzia globalaren zuzenketa prozesuan sinisten dute (Parker eta Chao, 2007).

> Wikipedia has only recently been utilized as a legitimate learning tool in the educational setting. Noted that wikis in general are one of many Web 2.0 components that could be used to enhance the learning process (Evans, 2006:3).

Bestetik, Boulos, Maramba eta Wheeler-ek (2006) Wikipediak hezkuntzan lekua lortu duela aitortu zuten. Hezkuntza eta Wikipediaren inguruan egindako ikerketa batzuen ondoren, ikaslea bere ikasketa autonomoan eta kritikoan ezagutza prozesu propioan murgiltzen dela ondorioztatu zuten.

Deanning, Horning, Parnas eta Weinstein-ek (2005) hainbat inkestetan ateratako emaitzen ondorioz Wikipediaren inguruko arriskuak hauteman zituzten. Autore hauen arabera bere informazioa erabiltzerakoan Wikipediak dituen arriskuak sei dira:

1. Zehaztasuna: edukien artean zein den zehatza ez jakitea. Erreferentzia faltagatik.

2. Arrazoiak: editoreek Wikipedian sarrerak egiteko dituzten arrazoiak edo motibazioak zeintzuk diren ez ezagutzea.

3. Esperientzia: editoreek duten esperientzia zein den ez jakitea.

4. Egonkortasuna: azken bisitatik edukiak aldatu direla ez jakitea.

5. Estaldura: gaien estaldura irregularra izatea.

6. Informazio iturriak: aipatutako informazioa edozein iturri ezkututik etorri daiteke.

Honekin guztiarekin, ikerketak egin dira Wikipediaren fidagarritasuna hobetzeko. Ondorioz, 2005ean Gilesek baieztatu eta erakutsi zuen Wikipediak Britainiako entziklopedia bezalako fidagarritasuna eta zehaztasuna duela. Gainera, Rosenzweig-ek (2006) aurreko baieztapenaren ebidentzia aurkitu zuen eta Wikipedia konparagarria dela informazio iturri errespetagarriekin eta garrantzitsuenekin, Encarta eta American National Biography Online, parekoa dela ondorioztatu zuen.

4.1.1.2. Irakasleen papera

Teknologia berriek hezkuntza arloan aritzen direnei informazioa helarazteko bide azkarragoa eskaintzen diete. Beraz, teknologia berrien inklusioa onartzen da hezkuntzan eta ikasleen orientazioan parte hartzea da irakaslearen betebeharra.

Ikasleek lanak era autonomoan egiteko, baita lana osatzeko behar duten informazioa aukeratzeko gaitasuna izateko ere, irakasleen oharrak jarraitu behar dituzte. Gainera, era kritikoan ebaluatzen jakitea irakasleen betebeharra da. Horrela, ikasleek iritzi kritikoa garatuko lukete informazio trataerarekin, eta interneten idatzita dagoen informazio guztia ez lukete sinetsiko (Magdaleno, 2013).

Ikasleek Wikipedian irakurtzen duten guztia egia dela uste dute? Ikasleen usteak landu zituzten bi adituek, Jaso LaFrance-ren eta Daniel W. Calhoun-ek, ikasleek irakurtzen duten guztia sinistea irakasleek aurre egin beharreko arazoa dela uste zuten:

> Spend more time teaching about the limitations of all information sources, including Wikipedia, and emphasizing the skills of critical analysis of primary and secondary sources. (LaFrance; Calhounen, 2012:137).

Gaur egungo ikasle-belaunaldiak ingurune digital batean hazi dira, non informazio iturri nagusiena sarean dago. Horregatik, idatzizko lan akademikoen esparruan, Wikipediaren erabilera eta bertan dagoen edukiaren analisi kritikoa hezkuntza arloan landu behar da ikasleekin.

Irakasleek prozesu konstruktibo eta arrazoi kritikoaren lanketa nola egin irakatsi behar dute. Baita ikasleen arrazoi kritikoaren erabilera hobetzen irakatsi, informazio iturrien izendatzea eta informazioaren aurkezpena alde batera utzi gabe. Alonso de Magdaleno-k eta Garcia-k (2013) adierazi zuten irakasleek askotan kritika gabeko hausnarketak jasotzen dituztela, ikasleen idatzizko lanetan interneten aurkitutako informazioaren “kopiatu eta itsatsi” hutsa egiten dutelako.

Gaur egun informazioa bilatzeko existitzen den baliabiderik nagusiena Internet da, eta horregatik, Wikipedia ikasleen ikasketa prozesuan integratu behar da. Irakasleek ikasleak ebaluatzeko unean teknologia berrien ezaugarriak kontuan hartu behar dituzte, eta hezkuntzak gizartearen aldaketa prozesuarekin bat egin behar duela diote Magdalenok eta Garcia-k (2013).

4.2. Euskarazko Wikipedia

Wikipediak hizkuntza konkretu batean publikatutako artikuluen bisitak aztertuz, gaur egun (2018ko apirilean), Euskarazko Wikipediak 292.159 artikulu ditu guztira, “List of Wikipedia/eu” artikuluan agertzen den bezala. Wikia web aplikazio mota bat da, erabiltzaileei lankidetzan edukiak gehitzeko, aldatzeko edo ezabatzeko aukera ematen diena eta proiektu desberdinez osatuta dagoena.

Euskal Wikilarien Kultur Elkartea Donostian jaio zen 2016an. Instituzio askok gauza eta proiektu desberdinak egin nahi zituzten Wikipediarekin, baina fisikoki ez zegoenez kontaktatzeko modurik kultur elkartea sortu zuten. Elkartea izateaz aparte Wikimedia fundazioak Nazioarteko Wikimedia Fundazioan onartutako erabiltzaile taldea da.

Erabiltzaile taldeak gai edo proiektu bereziak lantzen dituzte hizkuntzaka edota gaika. Euskal Wikilarien kasuan bideratzen ari diren proiektu guztien artean garrantzi handiena duena hezkuntza programa da. Bestetik, aurrera eramaten ari diren proiektuek Euskal Herriko ondare desberdinak jasotzea dute oinarri. Hortaz gain, aditu desberdinekin elkarlanak burutzen dituzte Wikipedian editatzen ikasteko, ikastaroak emateko etab.

Wikimedia Fundazioa mundu mailan hamar-hamabi pertsonaz osatuta dago eta patronatua du, izenak dioen moduan fundazioa delako. Horiek boluntarioak dira eta fundazioa zuzentzen dute. Izan ere, Wikimedia 300 langilez osatuta dago eta mantendua eta lan teknikoak burutzen dituzte, baita hainbat proiektuen garapena eta jarraipena ere kudeatzen dituzte.

Bestetik, Fundazioak urtean behin jasotzen duen diru laguntzetatik mundu osoko proiektuak finantzatzen ditu. Euskal Herrian aldiz, ez du finantziaziorik eskatzen Wikimedia independentea delako. Orduan, Wikipediako erabiltzaile talde bakoitza boluntarioz osatuta dago eta proiektuak modu librean burutzeko edo partekatzeko aukera librea du. Proiektuak garatzen dituzten pertsonek langileak dira eta norbanako guzti horiek munduan zehar hedatzen dira. Eragile bakoitzak proiektua nola antolatu eta burutuko duen erabakitzen du.

Euskarazko Wikipedia momentu honetan 40 pertsonaz osatuta dago. Gero, aktibitate ertainarekin 100 bat pertsona, eta ikasleekin 800.

Wikipediaren sustatzailea Wikimedia Fundazioa da, irabazi asmorik gabeko erakunde sustengatua, hots, Wikipedia Entziklopedia bezalako proiektu askeak sustatzen ditu. Kultura sustatzearen premiarekin, proiektu handiak direnez, elkartutako erakunde independenteen sare bat sortu zuten antolakuntza hobetzeko. Sare horrek hainbat herrialdeetako Wikilariak batzen ditu; horien artean Euskal Wikilarien Kultur Elkartea (EWKE) aurkitzen da. Aurretik esan bezala Wikipedia entziklopedia eleanitza da eta hainbat hizkuntzetara hedatzen den modu berean, Euskarazko Wikipediak euskal hizkuntza, euskal kultura eta jakintza unibertsalak ditu ardatz gisa. Ezagutza guztiak euskaraz eskuragarri jartzeko asmoa du.

Euskarazko Wikipediako azalean ere hurrengo esaldia agertzen da: "Ongi etorri Wikipediara, edozeinek hobetu dezakeen Entziklopedia Askea". Beraz, prozesu parte-hartzailea da Wikipedian artikuluak idaztea. Hori dela eta, Euskal Wikilarien Kultura elkartea euskararen erabilera Wikipedia barruan bultzatzen ari da. Ez bakarrik informazio artikuluak euskaraz idazten, baizik eta Wikipediak dituen hartzaileen parte-hartzea sustatzen ere.

Euskal Wikipedia proiektua sustatu, ezagutarazi eta zabaltzen ari da. Sustapenak bi norabide ditu; alde batetik, Euskal Wikipediaren eduki kopuru eta hauen kalitatea hobetzea. Bestetik, euskaldunen artean euskarazko Wikipediaren erabilera bultzatzea.

Horretarako, Wikilarien Kultur Elkarteak idatzizko artikuluak ez ezik, multimediazko edukiak ere sartu nahi ditu Wikipedia barruan. Izan ere, gero eta ikasle gehiago dira Wikipedia erabiltzen dutenak haien lanak egiteko orduan.

4.3. Bideoak hezkuntzan

Hezkuntza metodoek denboraren poderioz aurrera egin dute, gizartearen paradigmarekin batera. Ikerketak egin dira hezkuntzarako bideoen onuren inguruan eta badirudi ikus-entzunezkoek badutela eragin positiboa ikaste prozesuetan. Fernández-Río-ren hitzen arabera (2017), hezkuntza sisteman, ikasleen motibazioan eragin positiboa izan ditzakete ikus-entzunezkoek. Beste eragin positiboa mezua bera kanal ugarietatik (ahozkoa, testuala, musikala…) aldi berean komunikatzen dutela da. Esate baterako, Fernández-Río-k (2017:116) hurrengo testigantzak bildu zituen:

> Zunzunegui (1984) considera que los documentales audiovisuales ayudan a "ficcionalizar" una realidad existente, volviendo la educación entretenida a los ojos de docentes y discentes, motivándoles. Entre otras cosas porque el lenguaje audiovisual permite la comunicación en varios canales a la vez (verbal, visual, textual, musical...), influyendo de distintos modos o a distintos niveles (racional, emotivo, estético, afectivo...) en el receptor (Fernández-Río, 2017:116).

Hezkuntzan hiru komunikazio elementu daude: igorlea, mezua eta hartzailea. Hau da, irakaslea, edukia eta ikaslea. Hala ere, paradigma sozial berri honetan elementu guztiak bihurtu dira igorle eta hartzaile, komunikazioa bidirekzional bihurtuz. Antonio Adame Tomás-ek (2009:1) hurrengo hitzekin definitzen du egoera:

> En un enfoque más moderno y participativo de la educación todos los agentes emiten y reciben información, de modo que el mensaje se refiere tanto a los contenidos de la enseñanza como a las ideas que manifiestan los alumnos en sus

> intervenciones, en sus actividades y en cualquiera de los mecanismos en los que se expresa su opinión (Adame Tomás, 2009:1).

Ikus-entzunezko metodoak, mezuak igortzeko euskarri osagarriak bezala planteatzen ditu Adame Tomas-ek (2009). Ikasleek erabili ditzaketen euskarriak dira ikus-entzunezkoak eta material horrekin haien lanak eta ikasketa prozesua osatu ditzaketela uste zuen Adame Tomas-ek (2009):

> En estos procesos de comunicación interactiva que se producen en el aula los recursos tecnológicos intervienen como medios complementarios de transmisión de los mensajes. Tanto es así que en la actualidad los alumnos también pueden utilizar tales medios a la hora de aprender y a la hora de realizar o presentar sus trabajos (Adame Tomás, 2009:1).

"The University of Queensland-eko Institute for teaching and learning innovation" (2018) argitaratutako "Pedagogical benefits" artikuluan, hainbat adituek ikus-entzunezkoen erabileraren onurak hezkuntzan adierazten dituzte. Willmot (2012) hitzen arabera, ikus-entzunezko edukiek errazten dute ikasleen motibazioaren gorakada eta arreta mailaren igoera. Willmot-ek (2012) ondorioztatu zuen ikasleen ulermena garatzen zela bideoei esker, eta horrekin batera ikasleen kalifikazioek ere gora egin zuten. Willmot-en (2012) hitzak horrela zioten:

> There is strong evidence that digital video reporting can inspire and engage students when incorporated into student-centred learning activities through: Increased student motivation, enhanced learning experience, higher marks development potential for deeper learning of the subject, development of learner autonomy, enhanced team working and communication skills, a source of evidence relating to skills for interviews, learning resources for future cohorts to use and opportunities for staff development (Willmot, 2012: o.g.).

Lehen aipatu bezala, Fernández-Ríok (2017) bideoen funtzioa hezkuntzan txertatzearen onurak ekarri zituen "Creación de vídeos educativos en la formación docente: un estudio de caso" artikulura. Oviedoko Unibertsitateko 92 ikasleekin egindako ikerketaren ondorioz, bideoaren erabilera hezkuntzan positibotzat jo zuen. Izan ere, landutako gai baten inguruan ikasleen arretak gora egin zuen eta irakaslearen azalpenak era argi batean jasotzearen gaitasuna ere azpimarratzen da hezkuntzarako bideoen funtzioen artean,

besteak beste:

> Su utilidad es grande, ya que la elaboración y edición de videos educativos permite desarrollar las siguientes funciones: (1) Organizadora del conocimiento: enlazar conocimientos previos de los estudiantes; (2) Ilustrativa: ayudar a ilustrar las explicaciones del docente; (3) Informativa: permitir informar sobre temas y contenidos concretos o mezclados; (4) Motivadora: estimular el interés por un tema; y (5) Evaluadora: evaluar el aprendizaje tanto el del alumno como el del docente (Fernández-Río, 2017:116).

Fernandez Riok (2017) egindako proiektuan ikasleak protagonistak diren arren, bideoen diseinua eta sorrera etorkizuneko irakasleen formakuntzarako baliozko erreminta dela ondorioztatu zuen:

> El diseño, creación y elaboración de videos educativos se ha mostrado como una herramienta valiosa en la formación inicial de futuros docentes: estimula el compromiso del docente y del discente, proporciona aprendizajes significativos, desarrolla competencias básicas, permite integrar contenidos de diferentes asignaturas, promueve la creatividad y ofrece más ventajas que inconvenientes en la práctica docente (Fernández-Río, 2017:125).

Bestetik, “Let's use video to reinvent education” bideoan, Sal Khan-ek (2011) hainbat hamarkadetan ikertutako emaitzen arabera hezkuntzaren formatua aldatzeko beharra dagoela dio. Khan-ek (2011) klaseak emateko moduari birmoldaketa bat egin beharko litzaiokeela argitu zuen, ikus-entzunezko baliabideak erabiliz eta ikasleari aukera eman klasetik kanpoko edukiak euskarri desberdinetan
lantzeko:

> Let's use video to reinvent education' describes the transformative way video can impact on teaching and learning and encourages teachers to consider the Flipped Clasroom model where learners can digest lecture content at their pace and explore content more deeply during class time (Sal Khan, 2011: o.g.).

Teknologia berrien inguruko ezagutza prozesuak iraunkorra eta formala izan behar du, denboran eta espazioan murrizketarik ez duena. Funtsezkoa da hezkuntza sistemak

dituen helburuen birmoldatzea maila guztietan eta belaunaldi berrien bitartez haztea. Horrela dio Ricaurte-k:

> Reformular el propósito de los sistemas educativos actuales en todos los niveles y dar pie a la generación de contextos y estrategias alternativas que permitan a los sujetos potenciar al máximo sus capacidades (Ricaurte, 2013: 70).

4.3.1. Hezkuntzarako bideoen ezaugarriak

Stanton-en (2012) hitzen arabera, ikasleentzako bideoak sortzerako orduan hainbat irizpide jarraitu behar dira; esate baterako, hartzailearen arreta bereganatzeko konexio bat sortu behar da hartzaile eta mezuaren artean. Horren harira “TED Talks”-eko bideo batean Andrew Stanton-ek (2012) narratibaren garrantziaz hitz egiten du; istorioa kontatzeko moduak eragin zuzena du hartzailean, baita ordenak ere.

Bestetik, “Pixar in a Box: Introduction to Storytelling” (2017) bideoan azaltzen da nola sortzen den konexioa mezua eta hartzailearen artean. Ikusleek konexioa sortzen dute istorioaren pertsonaien bizitzarekin, edota pertsonaiek burutzen duten eginkizunekin identifikatuta sentitzen dira. Konexio hori sortzen denean bideoaren mezuak eragina izaten du hartzailearengan.

Modu honetan, narratibak lortzen du hartzailearen arreta bereganatzea. Hezkuntzarako sortzen diren bideoek hartzaile-pertsonaiaren arteko konexioaren ezaugarria erabili behar dute ere “Guion audiovisual para vídeo educativo” (URJC, 2016) artikuluaren arabera.

Narratibaz gain, gidoia sortzeko momentuan badira beste hainbat ezaugarri bete behar direnak hezkuntza bideoaren helburuak lortu ahal izateko:

- Hezkuntza bideoaren abantailak ikaslearen, irakaslearen eta hezkuntza komunitatearen ikuspuntutik ezagutu.

- Izaera didaktikoa duten ikus-entzunezkoen narrazioek beste narratibekiko dituzten oinarri diferentzialak adierazi.

- Ezagutu ikus-entzuneko gidoi didaktikoen formatu, estrategia eta idazkuntza teknika anitzak.
- Praktikan jarri gidoi ereduak.
- Hausnartu ikus-entzunezkoen edukiek irakaskuntza digitalean duten garrantzia.

Hezkuntzako bideoak eraikitzerako orduan, bideoen errealizazioaren inguruko erabakiak ere garrantzitsuak dira. "Guion audiovisual para vídeo educativo" (URJC, 2016) artikuluaren hitzetan hauek dira ikasleentzako bideoen onurak:

- "Engagement"-ak parte-hartzea edo arretaren igoera bultzatzen du.
- Erantzukizun pertsonala ikasketa prozesuarekin handitzen da.
- Rol aktiboa eskatzen da, beharrezkoa den parte-hartze informatiboa eta emozionala lortzeko.
- Interakzioa eta lankidetza suztatzen da.
- Komunikazioko aldi baterako espazioak bilatzen dira kanal, hizkuntza eta ohiko formatuetan hartzaile objektiborako.
- Sarbide unibertsala edozein lekutik, edozein dispositibotik eta edozein momentuan.
- Edukiaren interesa eta arreta indartzen da.
- Analisia, pentsamendu kritikoa eta ulermena errazten da.
- Ikaskuntzari eskainitako denbora aprobetxatzen da.
- Ezagutzen oroitzapena eta praktikaren aplikazioa ahalbidetzen da.
- Erlazioa sortzen da hezkuntza prozesuaren, entretenimenduaren eta gizarte digitalaren aisialdiaren artean.
- Norberak bere hezkuntza-errekurtsoen sorkuntzaren papera sustatzen du, ez da bakarrik hartzaile papera sustatzen.

"Using audio and video for educational purposes" (Deakin Learning Futures Teaching Development Team, 2014) txostenean hainbat azalpen daude honen inguruan. Deakin Unibertsitatearen (2014) arabera, Victorian dagoen hezkuntza sistema garatuena da, funtsean. Learning futures Teaching Development Team-ak (Deakin Learning Futures Teaching Development Team, 2014) bideoen irudi eta soinu erabileraren onurak garrantzitsuak direla adierazten du.

Era berean, Fernandez Riok (2017) artikuluan ezagutarazi zuen 2016ean Alicant-en egindako Irakaskuntza Unibertsitarioaren Ikerketarako Sareen lanegunaren arabera, ikus-entzunezko materialak hezkuntzarako euskarri egokiak dira praktika profesional egokia burutu ahal izateko .

Alicia Ruiz Mateoren (2009) hitzen arabera, gaur egungo gizartean bideoak hezkuntza sisteman erabiltzea, aurrerapauso handia da ikaste-irakaste prozesuetarako. Gaur egungo gizarteak egiten dituen aurrerapen teknologikoekin batera, hezkuntzak ere aurrerapen hori egin behar du. Ruiz Mateok (2009) argitaratutako "La utilización del video en la educación primaria" artikuluak hurrengoa dio:

> La incorporación paulatina de las nuevas tecnologías al ámbito educativo permite vislumbrar el potencial pedagógico de su aplicación al abrir un amplio horizonte de posibilidades educativas, así como la transformación de los procesos enseñanza- aprendizaje y la generación de nuevos métodos y por consiguiente el uso indispensable de estas tecnologías como medio didáctico de la escuela (Ruiz Mateo, 2009:2).

Komunikazio kanalak ez dira informazio igorleak soilik, hartzaileen gaitasun kognitiboen garapenaren parte dira ere. Alicia Ruiz Mateok (2009) idatzitako artikuluan argitzen denez "Los medios no son solamente instrumentos transmisores de información, sino que proporcionan el desarrollo de determinadas habilidades cognitivas en los sujetos, cumpliéndose además la función de mediatizar el proceso de enseñanza" (Ruiz Mateo, 2009:2).

Oro har, Deakin-ek (2014:3) ikasleekiko planteatzen duen onura hurrengoa da: ikasleek edozein unetan, edozein lekuan daudela, sarbidea dute ikasteko materiala ikasi ahal izateko. Era berean, bideoak errazten du ikasle bakoitzak bere erritmoan ikastea, bai

“pause-play” behar duten aldi guztietan sakatzeko aukera ematen duelako, baita aurrera eta atzera joateko aukera ere duelako. Hortaz, ikasleen galdera ohikoenak murrizten dira. Honi guztiari Deakin-ek (2014:3) gehitzen dion beste puntu bat da irakasleak sortu ditzaketela nahi besteko bideo kopurua; azpimarratu nahi dituen edukiekin bideo pilulatxoak eginez.

Hezkuntzarako bideoen ezaugarriak jasotzen dituzten adibide konkretuak:

Bertsomate izeneko kanala, matematika ikasgaia lantzen duten bideoek osatzen dute. Wikilariek azaldu dutenez, EWKEn martxan jarri duten beste proiektu bat da. Hezkuntza Programaren barne, DBHko ikasleek landu behar duten edukiak errazteko bideak ireki nahi dizkiete. Horregatik, matematikan 100 kontzeptuen inguruko bideoak eskegi dituzte. Wikilariek matematikazko kontzeptuak bertsoen bidez azaltzearen erronka proposatu zioten Jone Uriari, bertsolari eta matematikaria dena.

Bertsomateko bideoek bi teknikaz osatuta daude; bideoa eta animazioa. Gainera, kutsu berritzaile agerikoa dute bideo hauek, izan ere, bertsoen bitartez matematika azalpena ematen da, funtsean.

Euskaraz ez ezik, gaztelaniaz ere aurkitu daitezke horrelako edukiak dituzten bideoak “Wikimedia Commons” iturrian; “File:StopMotion-fixed.webm” atalean, hain zuzen. Atal honetan bideo bakarra dago; “stop-motion” animazio teknikaren gaineko animazioa sortu zuten ‘Tecnológico de Monterrey’ (Ciudad de Mexiko, Mexiko) ikasleek 2017an.

Aurreko ataleko bideoek ez bezala, teknika ugari erabili dituzte bideo hau sortzeko; argazkia, plastilina, bideoa eta rotoskopia, beste batzuen artean.

Beste ildo batetik jarraituz, beste aurrekari bat “Wikimedia Commons” bera dela esan beharra dago. “Commons”, Wikimedian irabazi asmorik gabeko edukiera askeko proiektua da. Bere ezaugarri nagusia erabilera askeko irudiak izatea da. Edonork igo ditzake irudiak bertara, eta garrantzitsuena da horien erabilera librea izan behar dela. Honetan, nabarmendutako irudiak eta kalitatezko irudiak ikusteko aukera ematen da, hots, balio handiko irudi bezala hautatuak izan diren irudiak.

Bideo pilulen hainbat adibide ikusteko aukera ematen du ere “Wikimedia Commons”-ek; “Category:Videos uploaded within the Basque Education program agreement with Elhuyar Fundazioa” izena duen atalean, alegia. “Wikimedia Commons”-ek Elhuyar Fundazioarekin akordio bat egin du; Elhuyar Fundazioak landu dituen hainbat eduki modu askean “Wikimedia Commons”-era igotzeko baimena ematen duela da akordioaren funtsa, hain zuzen. Inguruaren ezaguera ikasgaiaren inguruko gaiak lantzen dituzte eta animazio formatuan sortutako euskarazko ikus-entzunezkoak dira.

4.3.2. Hezkuntzarako bideoen formatua

Badirudi hezkuntzarako bideoetan formatuak eragin handia duela URJC (2016) artikuluaren arabera. Bideo bakoitzak formatu desberdina izan dezake, baina hainbat ikus-entzunezkoak eraikitzen dira formatu bakarra erabiliz. Aldiz, badira beste batzuk formatu hibridoa dutenak, hau da, formatu desberdinen nahasketaz eratuak izaten dira. URJC (2016) artikuluaren arabera hainbat irizpide jarraitu behar dira bideoaren formatua erabakitzeko:

- Hobeto egokitzen eta edukien ezaugarriak bultzatzen duen formatua erabili behar da, publikoaren interesa eta helburu didaktikoak betetzeko.

- Produkzioaren beharraren eskaerak bete; esfortzua, denbora, bideak, eta abar.

- Bideoan txertatu nahi diren generoa eta tonu orokorrak erabaki; komedia, informatiboa, lasaia, serioa, etab.

Beraz, ikus-entzunezko formatu edo teknika azterketa bat burutu beharko da hezkuntzarako bideoak egiteko orduan. Alabaina, Rampe-k (2015) “Educational Video Formats” artikuluan adierazi zuen gazteen ikasketa-prozesuan ondorio desberdinak lortzen direla bideo formatuaren arabera; ez dela gauza bera irakasle bat klase bat ematen grabatzea edota dokumental bat sortzea, alegia.

Formatu ugari daude bideoak sortzeko. URJC (2016) artikuluaren arabera hurrengo formatuak ohikoenak dira hezkuntzan eta ikaste-irakaste prozesuetan:

- Bideokonferentzia: komunikazio zuzena edo sinkronoa. Formatu honen narrazio

eraiketak eta ikus-entzunezko hizkuntzaren erabilerak eraginkortasun handiagoa izan dezake aurkezpen sinple batek eduki dezakeena baino.

- Bideo-klase eta bideo-apunte: irakasleak pantailan aurkezten ditu edukiak, aurkezpen bisualen laguntzaz baliatuz; ilustrazioak, argazkiak, animazioak, musika, etab. Gainera, bideo-apuntean zuzeneko erakustaldia egiten da; arazo baten konponketa, ariketa bat zuzenean burutzea, etab. arbela digital edo dispositibo baten laguntzarekin.

- Erreportajea: bideo informatiboa edo dokumentala.

- Elkarrizketa: formatu honek errazten du ikuspuntu anitzen txertaketa eta eduki kurrikularrak aberasten ditu beste hainbat ikuspegiekin.

- Debatea, mahai borobila, solasaldia, tertulia: aukera anitzak ematen dituzten formatuak dira, helburu didaktikoa duten ikuspegi anitzak eta telebistarako elkarrizketen aniztasuna txertatzea ahalbideratzen duten formatuak dira.

- Dramatizatua: eszenan jarritako esperimentu zientifikoak edo kasu errealen simulazioak egitean datza.

- Fikzionala: telesail baten kapitulua edo labur-metraila bezalako kontakizuna. Oso errekurtso bikaina, izan ere, “Storytelling” hezigarriak ahalbideratzen du hartzailearen arreta bereganatzea fikziozko narratibagatik. Gainera, edukia era entretenigarri batean istorio baten bidez luzatzen da.

- Animazioa: oso estilo heterogeneoa da. Formatu honek “motion graphics” edo hainbat motatako 2D eta 3D animazioak sartzen ditu. Funtzio anitzetarako balio du; istorio bat kontatzeko, prozesu bat era dinamikoan ikustarazteko, eduki garrantzitsuenak azpimarratzeko…

- Spot: helburu didaktikoa duten zati publizitarioak (“teaser”-ak, trailerrak, bideoklipak, etab.). Marketin-komunikatzailea helburua duen, eta aldi berean, ikasteko balio duen formatua.

- Interaktiboa: multimedia komunikazioaren interakzioa gehitzeko aukera ematen du. Hartzailearen parte-hartzearen esperientzia aberasten du.

Hezkuntzari dagokionez animazioa izan daiteke bideo formaturik egokiena Rampe-n (2015) hitzen arabera. Rampe-n (2015) arabera animazio formatuak era nabarian handitu ditzake ikasleen arreta maila, eta ikasgaien edukiak hobeto ulertzeko bideoen funtzioa beharrezkoa dela aitortu zuen. Animazio formatuetan edo prozesuen animazioak sortzean, fenomenoak bistaratzea animazio estilizatuen edo 3D animazioen bidez eta fluxuko diagrama baten pausuak eta grafiko baten erabilera aztertzea, gaiaren ulermena eta ikuspegia era nabarian handitu dezake animazio formatuak. “Educational Video Formats” artikuluan, Michael Rampe-k (2015) animazioaren inguruan hurrengoa adierazi zuen:

> A very valid type of educational video that can often capture and communicate phenomena and processes not otherwise showable, the animated sequence or motion graphic sequence is comprised solely of computer generated imagery. Creating animations of complex processes or diagrams, visualising phenomena through the use of stylised or 3D animation and even stepping through the steps of a flow chart or graph can greatly increase the focus on and understanding of the subject matter (Rampe, 2015: o.g.).

Beraz, aurretik Michael Rampe-k (2015) adierazi duenez, ikasgaien edukiak hobeto barneratzeko erabiltzen den teknikarik egokienetarikoa animazioa da. Ikasleek barneratu dezakete ikasgaian ematen den materia animazioz egindako ikus-entzunezkoez baliatuz, inondik ere. Rampe-k (2015) esan bezala, animazio teknikak edukiak modu argian ikusteko aukera ematen du.

4.3.3. Hezkuntzako bideoen erabilgarritasuna frogatzeko galdetegiak

Bideoen erabilera hezkuntzan aztertzeko Fernández-Río-k ikerketa bat burutu zuen. Bere ikertzeko teknika hainbat ikasleekin hezkuntza bideoen proiekzioa egitean oinarritu zen, geroago ikasleen pertzepzioak eta ezagutzak bideoen inguruan baloratzeko.

Fernández-Río-k (2017:118) “Dada la no-existencia de un instrumento de valoración específico, se elaboraron dos cuestionarios” hitzetan adierazi zuen moduan, ez dira existitzen baloratzeko erreminta espezifikoak, beraz bi galdetegi elaboratu ziren:

> *A Galdetegia.* 17 itemek osatzen dute, diseinatu zen ikasleen jarrerak balioztatzeko hezkuntzako bideo diseinua interbentzioa baino lehen eta honen

ondoren (pre- post-testa). Esaldiak gehitu ziren ikasleen jarrerak eta sinesmenak zehazteko hezkuntzarako bideoen inguruan; erreminta metodologikoak bezala, diziplinartekotasuna lantzeko estrategia bezala, hezkuntza baloreen erlazioa eta ebaluatzeko erreminta bezala. Ikasleek galdetegia bete zuten interbentzioa egin aurretik eta behin amaitu zutenean (pre-post).

B Galdetegia. 22 itemek osatzen dute, galdetegi honek ikasleen esperientzia balioztatze zuzena egiteko nahia du, behin interbentzioa garatuta dagoenean (bakarrik post-test). Erabilgarritasun maila, esfortzua, motibazioa, ikasle bakoitzaren konpromisoa eta asetzea beste batzuen artean izan ziren galdetutako aspektuak (Fernández-Río, 2017:118).

5. METODOLOGIA

Hezkuntzarako erreminta baliagarriak izango diren bideoei buruzko informazioaz janzteko proiektuaren hartzaile nagusiak izango diren iritziak aztertu dira, hau da, DBHko ikasleen pertzepzioak. Gainera, ikerketa sakonago bat lortzeko premiarekin adituen hitzak ekarri dira dokumentura, alegia, elkarrizketa sakona egin da ere. Bertan ematen diren bizipenak eta aipuak erabili dira txostena janzteko.

Ikerketa galderei erantzuna emateko diseinatu da metodologia bat alderdi kualitatibo eta kuantitatiboekin. Izan ere, Lawley-ren ustez (1990) ikerketa-eredu mistoak dira egokienak; metodo kuantitatiboa, datu estatistikoak lortzen dituena, eta metodo kualitatiboa, interpretaziozko datuak bereganatzen dituena. Beraz, proiektu honetan bi metodoak batzen dituen ikerketa-ereduaren metodologia jarraitu da.

Devin eta Clark-en ustez (1987), berriz, data kuantitatiboak arazoaren magnitudea azalarazten du eta data kualitatiboak arazoaren zergatiak ulertzen laguntzen du. Ideia hori bat dator ikerketa honen helburu nagusiekin, bi zeregin horien premia sumatzen delako; magnitudera hurbildu, baita zergatiak ezagutu ere egiten dira. Era berean, Knufer eta McLellan-ek ere (1996), hezkuntza-alorreko ikerketa-diseinuetan elementu kuantitatiboak eta kualitatiboak uztartzea gomendatzen dute.

5.1. Ikerketaren diseinua

Lanaren helburua Wikipedian idatzita dauden zenbait artikuluen edukiak multimediara ekartzean datza. Horretarako, Wikipediaren edukiak irakurri, ikertu, eta bereganatu dira multimediazko hiru bideoak formatu desberdinarekin sortzeko. Erabilitako hiru formatu desberdinak animazioa, irakasle baten azalpena eta bideo pilula formatuak izan dira.

Bideoetan landu den gaia ikasleek aukeratu dute betetako inkesta (A eranskina) baten ondoren, eta feminismoa izan da aukeratu duten gaia. Geroago, ikasle hauek edukiaren inguruko galdetegi (B eranskina) bat bete dute eta ondoren, feminismoaren inguruan sortutako hiru bideoak ikuskatu dituzte. Amaitzeko, hasieran betetako galdetegi berdina (B eranskina) berriz bete dute.

Jasotako erantzunen bidez, ikus-entzunezkoek funtzionatzen dutela argitu da. Izan ere, lehenengo galdetegian ez dituzte erantzun guztiak asmatu, aldiz, bideoak ikusi ondoren betetako galdetegiaren arabera ikasleen %80ak erantzun guztiak asmatu dituztela ikusi da. Amaitzeko, hartzaileen pertzepzio guztiak jaso dira “focus group” baten bidez.

Ikus-entzunezko produktua eraikitzeko ezinbesteko hiru faktore hartu dira kontuan, *triangelua*, alegia; lehenengoa Wikipediak eskaintzen dituen euskarazko artikuluak dira, bigarrena multimedia eta hirugarrena ikasleak. Hiru faktore hauek elementu osagarriak dira haien artean, hau da, balio bereko elementuak dira; ez daude hierarkizatuak, alegia ez dago elementu bat beste elementu baten gainetik.

Wikipediak eskaintzen dituen euskarazko artikuluek piramidearen lehenengo punta osatzen dute. Izan ere, euskarazko Wikipediako artikuluek ahalbideratu dute egin diren hiru bideoen informazioa.

Bestetik, multimediak triangeluaren beste punta bat osatzen du. Artikulu idatzien informazioa multimediazko edukia izatera bilakatu da, ikasleak informazioa modu erraz eta entretenigarrian eskuragarri izateko helburuarekin.

Triangeluaren azkeneko punta ikasleek osatzen dute, haiek baitira bideo hauen hartzaile potentzialenak. Azken finean, hezkuntza bideoen funtsa ikasleak ikastea da.



5.1.1. Inkesta

Hobeto ezagutzeko ikasleen ikuspegia hezkuntzako bideoen erabileraren inguruan osatu da inkesta bat (A eranskina) Gasteizko Armentia ikastolako 1. eta 4. DBHko ikasleekin. Bertan agertzen diren galderak zein formatu eta zein gaiak nahi dituzten jakiteko erabili da.

55 ikasle izan ziren guztira inkesta bete zutenak. Erantzunen arabera, alde batetik feminismo gaiaren inguruan gehiago jakitea nahi zutela ondorioztatu zen, beste alde batetik, formatuari dagokionez, pilula txikiko bideo formatuak beste formatuen gainetik nahi zutela argitu zen.

5.1.2. Bideoak osatzea

Aurretik azaldu bezala, produktua hezkuntzarako baliagarriak suertatuko diren bideoak sortzean datza, gero ikasleekin testatzeko eta euren usteak eta pertzepzioak jasotzeko. Ikus-entzunezko hainbat baliabide eta teknikak erabili dira horretarako.

Hezkuntzarako bideoak sortzeko hainbat galderei erantzuna eman behar zaie proiektua hasi aurretik “Guión audiovisual para vídeo educativo” artikuluaren arabera (URJC, 2016) hauek dira erantzun beharreko galderak:

1. Zer eskainiko du bideoak? Zein abantaila tangibleak edo intangibleak aurkezten ditu hasieran?

2. Edukia eskaintzeko era hoberena eta diferentziala suertatuko da, hainbat konpetentzia garatzeko zuzendutako publikoarentzat? Edo era hobeago bat existitzen da?

3. Zein izango da bere funtzioa erabiliko diren beste materialei begira? Nagusia edo bigarren mailakoa? Ordezkoak edo laguntasun-osagarrikoak?

4. Nola ebaluatuko da, azkenean, gertatu den ikaskuntza prozesua?

Bideoa sortzerako orduan arreta jarri behar zaion beste puntu bat hurrengoa da: arlo

pedagogikoa eta didaktikoa zaintzen duen ikuspegi batetik sortu behar dira ikus-entzunezkoak. Azken finean, bideo hauen bidez bultzatu nahi da ikasleen ikasketa-prozesua.

Hiru bideo sortu dira eduki berarekin, feminismo gaia hain zuzen. Baina hirurek formatu desberdina dute, aurretik azaldu den bezala. Marko teorikoan hainbat formatu aztertu dira hezkuntza bideoak eraikitzeko eta ildo horretatik abiatuta, hiru aukeratu dira proiektu hau aurrera eramateko.

URJC (2016) artikuluaren arabera hainbat irizpide jarraitu behar dira bideoaren formatua erabakitzeko; lehenengo irizpidea hobeto egokitzen eta edukien ezaugarriak hobeto bultzatzen duen formatua erabili behar dela da, bigarrena aldiz, publikoaren interesa eta helburu didaktikoak betetzea da.

Lehenengo bideoa animazioarekin egin da. Feminismoaren gaia lantzen duen animazio bideoak 4:05 minutuko iraupena du, eta bestetik hezkuntzarako ikus-entzunezkoa distantziakidetasuna izateko emakume zein gizonezko ahotsek azalpena ematen dute. Bi ahotsen presentzia izatea bideoan garrantzitsua zela erabaki zen, feminismo delako bideoan lantzen den gaia kontuan hartuz.

Formatu hau erabiltzea aukeratu da hezkuntzarako bideoen gaia behin aztertu denean, ebidentziak ikusi direlako ondorioztatzeko animazioa dela formaturik egokiena hezkuntzarako bideoak sortzeko. Rampe hitzen (2015) arabera animazio formatuak era nabarian handitu ditzake ikasleen arreta maila, eta ikasgaien edukiak hobeto ulertzeko bideoen funtzioa beharrezkoa dela aitortu zuen.

Bigarren bideoa aldiz, irakasle baten azalpenaren grabaketan oinarritu da, hau da, bideo-klase edo bideo-apunte formatua aukeratu da. Bideoa eraikitzeko edo sortzeko momentuan formatu sinpleenetariko bat dela ondorioztatu da, irakurketak egin eta gero. Izan ere, ez du multimediazko inolako euskarririk; irakaslearen hitzak, keinuak eta arbelean agertzen diren marrazkiak dira azalpena gidatzen duten erremintak.

Bideo honen iraupena 3:55 minutukoa da eta irakasle emakumezkoa da azalpena ematen duena. Irakaslea emakumea izatea ez da izan bat-bateko erabakia. Gaia feminismoa dela kontuan hartuta eta azalpena irakasle bakarra emango zuenez nagusitasuna ematea emakumea den pertsona bati erabaki zen.

Hirugarren bideorako, “PlayGround” bezalako bideo pilulen formatua erabili da. Formatu berritzailea da eta hezkuntzarako bideoetan oraindik nekez erabili den formatua da. Formatu honen helburu nagusia informatzea era dinamikoan izan da hasieratik, horregatik izan da aukeratutako hirugarren formatua. Gainera, Armentia ikastolako ikasleak betetako inkestaren arabera (A eranskina) formatu irabazlea izan zen.

Azkeneko formatu honen bereizgarritasun nabariena bideoaren luzeran oinarritzen denez 3:00 minutuko bideoa sortu da. Izan ere, bideo hauek minutu bat eta hiru minutuen arteko iraupena izaten omen dute, ikaslearen arreta mantendu ahal izateko bideo osoan zehar. Bideo pilula eraikitzeko egile anitzen irudiak erabili dira, egile eskubideak dituzten irudiak barne. Beraz, ez da euskarri erabilgarria Wikipediarako, irakasteko funtzionatzen duen arren.

5.1.3. Bideo edukiaren inguruko galdetegia

Hezkuntza bideoek ikasleak ikasteko balio izan duten edo ez jakiteko bi metodo erabili dira geroago datuak dokumentura ekarriz; “focus group” eta edukiaren inguruko galdetegia.

Sortutako bideoen erabilera frogatzeko galdetegi bat eratu da, Fernández-Río-k (2017) egin zuen galdetegian oinarrituta. Fernández-Río-k eraikitako ikertzeko teknika hurrengo metodologiaz baliatu zen; hainbat ikasleekin hezkuntza bideoen proiekzioa egitean oinarritu zen geroago, bi galdetegien bidez, ikasleen pertzepzioak eta ezagutzak bideoen inguruan baloratzeko.

Galdetegiarekin aztertu nahi izan da ea bideoak baliagarriak diren ikasteko, eta bestetik, zein bideo formatuarekin ateratzen diren ikasketa emaitza hobeagoak. Horretarako, adin maila desberdineko ikasleekin bideoen pilotajea aurrera eraman da; bai ikasle maila bereko ikasleen artean, baita adin maila desberdinen artean ere.

Galdetegi honen aurre-testeoa beste ikastetxeko 4 ikasleekin burutu zen. Aurre-testeoarekin jakin zen zer nolako aldaketak egin beharko ziren bideoetan, baita edukien inguruko galdetegian ere Armentiako ikasleekin ikerketa burutu baino lehen.

1. DBHko bi ikasle aukeratu ziren, Urkide eskolako ikasleak eta 4. DBHko beste bi, Unamuno ikastetxekoak. Bideoak jarri baino lehen edukien inguruko galdetegia bete zuten eta hainbat galderen erantzuna gaizki eman zuten. 1. DBH mailako ikasle bati bideo pilula jarri genion, 4. DBH mailako beste bati irakasle azalpen bideoa eta beste biei, hau da, 1. eta 4. DBH mailako ikasle banari, animazio bideoa. Ondoren, laurok edukien inguruko galdetegia berriz bete zuten (B eranskina) eta gero, ikusita ez zituzten beste bideoak proiektatu zitzaien. Behin laurok hiru bideoak ikusi zituztenean “focus group”-a antolatu zen.

Prozesu berdina jarraitu da Armentia ikastolako ikasleekin. 47 itemei edukien inguruko galdetegia (B eranskina) luzatu zaie; 1. DBHko 23 ikasle eta 4.DBHko 24 ikasle guztira. Galdetegi honen bidez ikasleek dituzten gaiaren inguruko aurrezagutzak ezagutzeko aukera ematen da.

Gero, maila bakoitzean 3 talde osatu dira ikasleak banatuz eta talde bakoitzak bideo formatu bat ikusi du. Behin bideoak ikusita, hasieran bete duten edukiaren inguruko galdetegi berdina (B eranskina) era indibidual batean erantzun dute.

	ANIMAZIOA	PILULA	BIDEO-KLASEA
1.DBH NESKA	4	3	3
1.DBH MUTILA	4	4	5
4.DBH NESKA	4	3	4
4.DBH MUTILA	4	5	4

Galdetegiari esker bi datu baieztatu dira; batetik hezkuntzako bideoak erreminta baliagarriak direla ikasteko eta bestetik, animazio formatuarekin lortu direla emaitza hobeagoak edukiaren inguruko galdetegian.

5.1.4. Focus Group

Behin datu kuantitatiboak lortu direnean, datu kualitatiboak jaso dira. Datu kualitatiboak ateratzeko bi “focus group” planteatu dira parte-hartu duten ikasle talde osoarekin. 1. eta 4. DBH mailako 47 ikasleekin guztira burutu da, baina bi une desberdinetan. Lehenengo mailan lehenengo, 23 ikasle guztira. Geroago 4. DBHko 24 ikasleekin, hain zuzen.

"Focus group"-a erabili da hezkuntza bideoen inguruan ikasleen pertzepzioak zeintzuk diren jakiteko, hau da, nola sentitu diren gaiarekiko, entretenigarria iruditu zaien jakiteko, informazioa bereganatzeko erabilgarriak izan diren jakiteko, etab. Ariketa 15 minutukoa izan da ahoz eta geroago, dokumentu batean idatzizko iritzia eman behar izan dute ikasleek.

Argi utzi nahi da proiektua DBHko ikasleei bideratuta egon dela batik bat, baina, edozein momentuan, edozeinek ikasteko erabili ahal izango dituen erremintak izango direlakoaren ustea dago.

5.1.5. Elkarrizketa sakona

Ikerketaren helburuetan sakontzeko eta hobeto ulertzeko asmoarekin elkarrizketa sakon bat egin da. Adituaren iritziak gaiaren inguruan jasotzeko, baita informazioa eta usteak ere Galder Gonzalez elkarrizketatu da; Euskal Wikilari Kultur elkartearen kidea, Wikipediaren partaidea eta Bertsomate bideoen aditua.

Wikipediari buruz gehiago jakiteko, erakundean 2006tik gaur egunera parte izan den Galder Gonzalez kidearekin planteatu da elkarrizketa, bere hitzak baitira garrantzitsuak. Izan ere, Galderrek Wikipediaren bilakaera bizi izan du eta bertan eman diren alde positiboak eta negatiboak gertutik ezagutu ditu ere. Ondorengo lerroetan elkarrizketatua zein den, zergatik aukeratu den, bere lanpostua eta zeri buruz hitz egin duen azaltzen da:

- Galder Gonzalez, Theklan ezizena erabiltzen du, Wikipediaren Lankidea 2006ko urtarrilaren 8tik gaur egun arte. Elkarrizketa 2018ko maiatzaren 15ean egin zen. Aditu honen aukeraketaren arrazoia izan da bereziki Wikipediaren inguruko nondik norakoak ezagutzen dituelako, azken batean berak Wikipedia nola hazi eta sendotu den ikusi izan du. Hortaz, berak badaki Wikipediak zelan funtzionatzen duen, nola eraikitzen den, zeintzuk dira bertan parte hartzeko jarraitu behar diren irizpideak, etab.

6. EMAITZAK

6.1. Ikasleen ustez zein dira bideo formaturik egokienak bideoekin ikasteko?

6.1.1. Hezkuntza bideo formaturik egokiena ikasleen arabera, bideoak ikusi baino lehen

Lau hezkuntza bideo formatuen artean erabakitzeko eskatu zitzaien ikasleei testeoa egin baino lehen eta hauek izan ziren 55 ikasleen emaitzak:

1. %34,5a nahiago zuen bideo pilula formatua.
2. %25,5a nahiago zuen irakasleen azalpen formatua.
3. %23,6a nahiago zuen animazio formatua.
4. %16,4a nahiago zuen dokumental formatua.



Iruzkinetan ikasleek hurrengoa adierazi zuten: “Pilula motzeko formatu bideoen iraupena eta zehaztasuna egokia da gai bat ikasteko. Idatzizko esaldiak daramatzate eta horrek errazten du edukiaren ulermena. Bestetik, irudiek laguntzen dute edukia barneratzeko”.

6.1.2. Hezkuntza bideo formaturik egokiena aurre-testeoan

Lau ikasleekin egin da aurre-testeoa, eta bideoak ikusi eta gero lau ikasleek erantzun guztiak ondo bete dituzte. Edukien inguruko galdetegiaren (B eranskina) %100a

ondo erantzun dute. Ikasleek adierazi dute “bideoan agertzen ziren hainbat kontzeptu ikasi ditut, esate baterako patriarkatua. Ez nekien etxeko arlotik kanpo eragiten zuen sistema zela”.

Lehenengo ikasleen arabera, hiru bideoek erabilgarriak dira gaiaren inguruan ikasteko. Hala ere, pilula bideo formatua erabilgarriagoa dela azpimarratu du, “Hiru bideoak ondo egon diren arren, “Play Ground” bideo formatua aukeratuko nuke. Esaldiak idatzita daudenez, informazioa era zuzen batean jasotzeko aukera ahalbideratzen duen formatua da”.

Bigarren ikasleak ere bideo pilula formatua aukeratu du, “Animazioa asko gustatu zait. Baina, feminismo gaia lantzeko, nire ustez, bideo pilula egokiagoa da. Izan ere, enpatia gehiago sortzen du gaiarekiko eta feminismoaren inguruko kontzientziazioa behar delakoan nago. Irudi errealak erabiltzea prozesu hau errazten du, behintzat nire buruarekiko”.

6.1.3. Hezkuntza bideo formaturik egokiena Armentia ikastolako ikasleen arabera bideoak ikusi ondoren

1.DBHko ikasleen %100ak animazio formatua aukeratu zuen, “marrazkiek oso espresiboak dira eta interesa pizten dute”.

Beste ikasle batek horrela zioen “Ikusten duzunean buruak ez dizu esaten “utz ezazu, oso aspergarria da”. Alegia, oso interesgarria izaten da. Modurik errazena eta politena da ikasteko”.

4. DBHko ikasleek aldiz, heldutasunaren arabera bat edo bestea aukeratuko luketela adierazi dute: “Segun norentzat bideratuta egongo den. Adibidez; oso alferra den pertsona batentzako animazioa izango litzateke egokiena. Eta heldutasun puntu bat daukan pertsonarentzako irakaslearen formatua izango litzateke egokiena edo pilula bideoa baita”.

4.DBHko bigarren ikasleak animazioaren erabilgarritasuna azpimarratu du: “Oso espresiboak dira marrazkiak eta edukia barneratzeko erraztasunak ematen ditu. Informazio idatziaz aparte bideoak nahiko erabilgarriak dira ikasteko, eta egokitzen dira gure nahietara”.

6.2. Zeintzuk dira ikasleek Wikipedian landu nahi dituzten ikasgaiak bideoekin?

Armentiako 55 itemek bete zuten inkestan (A eranskina) ikasgai anitzak planteatzen ziren, gero horien inguruko hezkuntza bideoak sortzeko. Ikasle kopuru gehiengoak feminismo gaia aukeratu zuen. Hala ere, gaur egungo gaiak eta historia ikasgaiek ere ehuneko nabaria lortu zuten:

1. Ikasleen %35,2ak feminismo gaia landu nahi zuen.
2. Ikasleen %24,1ak gaur egungo gaiak landu nahi zituen.
3. Ikasleen %20,4ak historia landu nahi zuen.
4. Ikasleen %7,4ak geopolitika landu nahi zuen.
5. Ikasleen %3,7ak emakume famatuak landu nahi zituzten.
6. Aukeran emandako beste gaiek %1,9 boto bana lortu zituzten.



6.3. Ikus-entzunezkoek hezkuntza prozesuan aldaketak egin dituzte?

Jesus Garmendia (2016) hitzen arabera, “Lehenengo metodologia eta gaur egunekoa ez da berdina. Pedagogiak bere bidea egin du, eta guk bide horren kurtsoak egin ditugu, korronte horiei erantzuna emanez. Beraz, klaseak emateko modua, teknologia berriak, taktikak egiteko modua, mila gauzetan egokitzen joan gara, gizartearen aurrerapen horietara”.

6.3.1. Ikus-entzunezkoek eragindako aldaketak Armentiako ikasleen arabera

Ikasketa prozesua DBH mailetan zaila da, izan ere, ikasleek adin horietan ez diote behar besteko garrantzia ematen ikasketei. Hori dela eta, ikasketa prozesuaren birmoldaketa eskatzen dute. Badirudi, ikasleen hitzen arabera, bideoek lagungarriak direla ikasteko. Izan ere, bizi garen garaian puri-purian dagoen eta gero eta nabariagoa den teknologia garaian bizi garela.

Gainera irudia eta soinua ulermen maila handitzea ahalbideratzen dutela diote ikasleek, “Ulertzeko errazak dira. Gure buruak bakarrik entzumenarekin nahikoa du. Eskema moduan egoten da, argazkiez lagunduta, ez da oso “zozoa” izaten bideoaren bidez ikastea”.

6.4. Ikasleen ustez bideoek laguntzen dute Wikipediako gai bat hobeto ikasten?

Magdaleno eta Garcia (2013) egindako hausnarketaren arabera, Wikipedia birmoldaketa bat egin beharko zuen paradigma sozialarekin batera. Izan ere, Wikipedia bera informazio iturririk nagusienetarikoa izanda mundu mailan, egokitu behar da bere garaira eta hezkuntzak hobeto erabili beharko luke Wikipedia. Horretarako, bi autore hauen arabera, garrantzitsua da aldaketa egitea:

> Creemos que Wikipedia constituye no sólo un recurso educativo por sus contenidos sino también una poderosa herramienta de aprendizaje. Los cambios en la educación deben correr paralelos a los cambios sociales. Las nuevas generaciones están creciendo en una era en la que los libros escritos ya son anacrónicos. Se hace necesario incluir a la Wikipedia en el proceso de aprendizaje (Magdaleno; Garcia, 2013: 25).

Ikasleen arabera landutako proiektuak aldaketa bat suposatuko du etorkizunari begira, ikasketa prozesuari dagokionez, “Niri gustatuko litzaidake bideoen bidez lan egitea eta ikastea. Asko gustatzen zait hezkuntza bideoen proiektua ikasteko errazagoa delako eta ikasketa prozesuan laguntzen duelako”.

Beste ikasle batek azalpenaren ulermenaren erraztasuna azpimarratu du: “Bideoa ikasteko tresna oso ona da. Azalpenak onak dira eta oso errazak, motza egiten zaizu.

Feminismoa lantzeko asko balio du momentuan ulertzen eta buruan gelditzen zaizulako".

6.4.1. Bideoak Wikipediako gaiak hobeto ikasteko Armentia ikastolako ikasleen arabera, bideoak ikusi ondoren

Ikasleen arabera hainbat hobekuntzak ekarri dituzte ikus-entzunezkoek hezkuntza arlora. Betidanik idatzizko edo liburuen bidezko hezkuntza jaso izan dute, eta ez diote horri uko egin nahi, bazik eta hezkuntza metodologia birmoldatu. Horretarako hezkuntzarako bideoen ezarpena Wikipedian onuragarria delakoan daude: "Azalpena hobeto idatzitakoan baino. Hala ere, idatzizko informazioa baliagarria da eta ez dut alde batera utzi nahi, bizik eta hau osatu bideoen bidez. Ulertzeko errazagoa da eta gaiaren puntu nagusiak nabarmentzen dira ikus-entzunezkoen bidez".

Gainera, Wikipediak duen globalizazioa azpimarratzen da hurrengo ikasleen arabera, "Nire kasuan kirol edo animali baten biografia ikusteko bideoa ez nuke gomendatuko ze Wikipediari esker ikuspegia handiago bat daukat, eta azkarrago ikusi dezaket behar dudana edo nahi dudan informazioa, beti bilatzen baitugu bertan informazioa".

6.4.2. Bideoak Wikipediako gaiak hobeto ikasteko Armentia ikastolako ikasleen emaitzen arabera, edukien inguruko galdetegia bete ondoren

Metodologian aipatu den bezala, behin ikasleek edukien inguruko galdetegia (B eranskina) bete dutenean, ikus-entzunezkoek gai baten inguruko edukiak barneratzeko funtzionatzen dutela argitu da. Lehenengo galdetegian erantzun guztiak asmatu ez dituzten arren, bideoak ikusi ondoren betetako galdetegian ikasleen %80ak erantzun guztiak asmatu ditu.

Hurrengo grafikoetan aurkezten dira edukien inguruko galdetegien emaitzak. Ezkerrean bideoak ikusi aurrekoak, eskuinean aldiz, behin bideoak ikusi ondorengoak:

Jaiotzen garenetik sexuaren arabera sailkatzen gaituzte, neska edo mutil bezala, baina gizarteak ez du gure hezteko modua baldintzatzen.
3 erantzun



Jaiotzen garenetik sexuaren arabera sailkatzen gaituzte, neska edo mutil bezala, baina gizarteak ez du gure hezteko modua baldintzatzen.
3 erantzun

Gizarteak estereotipoen arabera generoak desberdintzen ditu. Honekin gure pentsatzeko modua, izaera eta rolak inposatzen zaizkigu.
3 erantzun

Gizarteak estereotipoen arabera generoak desberdintzen ditu. Honekin gure pentsatzeko modua, izaera eta rolak inposatzen zaizkigu.
3 erantzun

Gizarte honetan bai gizonak, baita emakumeak ere arrazionalak eta emozionalak dira.
3 erantzun



Gizarte honetan bai gizonak, baita emakumeak ere arrazionalak eta emozionalak dira.
3 erantzun



Gizarteak bultzatzen dituen hainbat ideia, jarrera, jokabide eta praktika sozialak gizonezkoei eta maskulino denari abantailak ematen dizkiete.
4 erantzun



Gizarteak bultzatzen dituen hainbat ideia, jarrera, jokabide eta praktika sozialak gizonezkoei eta maskulino denari abantailak ematen dizkiete.
3 erantzun

Emakumeek aukera gutxiago dituzte enpresa baten buruak izateko edota goi karguetan aritzeko.
4 erantzun



Emakumeek aukera gutxiago dituzte enpresa baten buruak izateko edota goi karguetan aritzeko.
3 erantzun

Urtean ehun emakume irain fisikoa, sexuala, emozionala, psikologikoa eta ondorearen biktimak dira.
4 erantzun



Urtean ehun emakume irain fisikoa, sexuala, emozionala, psikologikoa eta ondorearen biktimak dira.
3 erantzun



Feminismoa: emakume eta gizonek eskubide eta aukera igualak izatea.
3 erantzun



Feminismoa: emakume eta gizonek eskubide eta aukera igualak izatea.
3 erantzun

Matxismoa gizonak emakumearen gainetik dagoela defendatzen duen borroka da.
3 erantzun



Matxismoa gizonak emakumearen gainetik dagoela defendatzen duen borroka da.
3 erantzun



Gure emakume arbasoek eskubidea zuten unibertsitatera joateko, abortatzeko eta dibortziatzeko.
3 erantzun



Gure emakume arbasoek eskubidea zuten unibertsitatera joateko, abortatzeko eta dibortziatzeko.
3 erantzun

Borroka feminista: emakumeon bizi-baldintzaren hobekuntza aldarrikatzen duen borroka da.
3 erantzun



Borroka feminista: emakumeon bizi-baldintzaren hobekuntza aldarrikatzen duen borroka da.
3 erantzun

SUFRAGISTAK: emakumearen boto eskubidea aldarrikatzen zuten.
3 erantzun

SUFRAGISTAK: emakumearen boto eskubidea aldarrikatzen zuten.
3 erantzun

Patriarkatua: gizonak etxeko arloan bakarrik nagusitasuna dauka emakumeen eta haurren gainetik.
3 erantzun



Patriarkatua: gizonak etxeko arloan bakarrik nagusitasuna dauka emakumeen eta haurren gainetik.
3 erantzun



6.5. Zer nolako ezaugarriak izan behar ditu bideo batek Wikipediako edukiak jasotzeko?

Wikipediako artikulu idatziek, zein multimediazkoek hainbat ezaugarri bete behar dituzte. Izan ere, gero eta erabilgarriagoa da Wikipedia. Beraz, Wikipedia osatzen duten edukiek informazio zuzena eman behar dute.

Galder Gónzalez (2018) hitzen arabera hauek dira bideo eta artikuluek bete behar dituzten irizpideak:

1. Edukia entziklopedikoa izan behar dute, garrantzi akademikoa dela medio.

2. Neutraltasuna mantendu behar du, termino eztabaidagarriak eta balorazio adjektiboak ezin dira egon.

3. Eduki guztiak libreak izan behar dira, Wikipediak eskuragarri uzten duen informazioa edozeinek erabiltzeko edozein baldintzatan. Horrek eskatzen du material guztia librea izan behar dela, eta erreferentziatua egon behar dela.

6.5.1. Zer nolako ezaugarriak izan behar ditu bideo batek Wikipediako edukiak jasotzeko Armentiako ikasleen arabera?

Ikasleek diotenaren arabera Wikipediak hiru irizpide bete beharko lituzke hezkuntza bideo bat baliagarria izateko: “Informaziozko idatzia bideoaren bidez eskematizatu eta errazago bidali informazioa. Bestetik, Wikipediarako izan behar baldin badia azpitituluak dituzten bideoak izan beharko dira, baina euskal Wikipediarako soilik egiten badira ez. Amaitzeko, argitu kredituetan edo bideoa hasi aurretik informazioa aldakorra izan daitekeela beharrezkoa denen gaien artean”.

7. ONDORIOAK

7.1. Lehenengo ikerketa-galderaren inguruko ondorioak: Ikasleen ustez zein dira bideo formaturik egokienak bideoen bidez ikasteko?

1. Ondorioa. Ikasleen arabera animazioa da formaturik egokiena. Edukiak barneratzen laguntzen du. Errealitatearen gertutasuna eskaintzen du modu entretenigarri eta zuzen batean.

Ikasleen ustez animazioa da hezkuntza bideoak sortzeko formaturik egokiena. Hori izan da ikasleek aukeratu duten bideo formatua. DBHko ikasleek animazioa aukeratu dute bi arrazoiengatik; lehenengoa edukiaren ulergarritasunaren gorakada da, eta bigarrena, formaturik entretenigarriena delako.

Animazioak edukien barneratze prozesua ahalbideratzen duela uste dute ikasleek, beste formatuak baita, baina animazioa osatuena dela diote. Marrazkiek errealitatearen gertutasuna eskaintzen dutela adierazi dute gazteek eta hori dela irizpide bat edukiak barneratzeko ere defendatu dute.

Ikasleek animazioa aukeratu dute errazten dielako ulergarritasuna, baina sortzaileentzako aldiz, bideoak egiteko formaturik zailena da. Denbora luzez landu behar den formatua da, izan ere, marrazkiz egindako ikus-entzunezkoa da eta marrazki bakoitza era indibidual batean landu behar da. Geroago, bideoan txertatu eta marrazki guztiak osotasunean eta globalean landu behar dira.

7.2. Bigarren ikerketa-galderaren inguruko ondorioak: Zeintzuk dira ikasleek Wikipedian landu nahi dituzten ikasgaiak bideoen bidez?

2. Ondorioa. Feminismoa, gaur egungo gaiak, historia eta geopolitika dira ikasleek Wikipedian landu nahi dituzten gaiak.

Ikasleen ehuneko kopuru handienak feminismo gaia aukeratu du bideoen bidez lantzeko Wikipedian. Beharrezkoa ikusten dute gaia lantzea gaur egun dagoen egoera soziala kontuan hartuta, “gero eta gehiago behar da feminismo gaia ikastoletan lantzea, kasu asko daudelako non emakumeen gutxiespena nabaria den. Oso garrantzitsua dela pentsatzen dugu”.

Baina beste hainbat gai ere ehuneko altua lortu dute; gaur egungo gaiak, historia eta geopolitika. Gai hauen aukeraketaren zergatia zailtasunarekin bat dator. Ikasleek bermatu dute ikasterako orduan gehien kostatzen zaien ikasgaiak direla eta horien errefortzua behar dutela.

7.3. Hirugarren ikerketa-galderaren inguruko ondorioak: Ikus-entzunezkoek hezkuntza prozesuan aldaketak egin dituzte?

3. Ondorioa. Hezkuntza eredua aldatu da eta hezkuntzan teknologia berrien inklusioaren ondorioz, ikaste-irakaste prozesuan aldaketak egon dira. Ikus-entzutezkoek laguntzen eta errazten dute ikaste-irakaste prozesua. Irakaslea laguntzailean bihurtzen da ikaslearen ikasketa prozesuan.

Ikasleen arabera, idatzizko informazioaren osagarri bezala beharrezkoak ikusten dituzte bideoak hainbat gai lantzeko, “Zailak dira Historia eta Geo. Izan ere, eduki kopuru handia duten ikasgaiak dira eta ikasteko ordu asko behar dira. “Érase una vez el hombre” eta “Érase una vez el cuerpo humano” bideoek asko lagundu digute lehen hezkuntzan eta pentsatzen dugu bideoek Wikipedian berdin lagunduko digutela”.

Urte batzuetatik hona hezkuntza prozesua aldatu da. Ikus-entzunezkoen erabilerak gora egin du hezkuntza arloan. Ruiz Mateo-ren (2009) hitzen arabera, gaur egun paradigma berria planteatzen da eta bideoak hezkuntza sisteman gehitzea aurrera pauso handia da.

Bestetik, Deakin-ek dio (2014) bideoek errazten dutela ikasle bakoitzak bere erritmoan ikastea, bai “pause-play” behar duten aldi guztietan sakatzeko aukera ematen dutelako, baita aurrera eta atzera joateko aukera ere dutelako. Hau guztia kontuan hartuta, ikasle-irakasleekiko hezkuntza prozesuan onurak ekartzen dituztela adierazi zuen.

Ikasleen ustez azpimarratzekoa da, ikastola edo eskola bakoitzak bere hezkuntza eredu propioa diseinatu duela, baina proiektu honek ekarriko duela hezkuntza eredu berritzailea. Ikasleen ustetan multimediaren inklusioa ikasketa prozesuan ondorio positiboak dakar. Izan ere, informazioa jasotzeko modua erakargarriagoa suertatzen zaie irudien bitartez.

Hala ere, ez du bakarrik ikasleen ikasketa prozesua aldatzen, irakasleen irakaste

prozesuaren barnean, eta irakasleen papera klaseetan ere aldatu duen metodologia da. Irakasleen rola bideratu da gehiago tutore lanetara, edota ikasleen lan prozesuaren jarraitzailean, zein ikasle lanen gidarian.

Irakaslearen funtzio berriak praktikan jarri ahal izateko ikaslearentzat izango den lan prozesu pertsonalizatuagoa eraiki beharko da, eta gai baten edukiak hobeto barneratzeko tresnak erabiltzen irakatsi beharko zaie. Hortaz, planteatzen den etorkizuna ikasle bakoitza izan behar dela bere ikaskuntza prozesuaren jabe da, beti ere ondoan irakaslearen laguntza edukita.

7.4. Laugarren ikerketa-galderaren inguruko ondorioak: Ikasleen ustez bideoek laguntzen dute Wikipediako gai bat hobeto ikasten?

4. Ondorioa: Ikasleek sinisten dute hezkuntzarako bideoen balioan. Informazioa azkar bereganatu nahi dute. Wikipedia informazio iturri erreferente bezala dute.

Ikasleek entziklopedikoa den informazioa behar dute haien lanak eta azterketak prestatzeko. Gainera, liburuek hainbatetan informazioz motz geratzen dira eta Internetera jotzen dute ikasleek eta Wikipedian dagoen informazioa eskuratzen dute. Hori dela eta, beharrezkoa ikusten dute Wikipedia ikus-entzunezko edukiaz osatzea, ikasleek nahiago dutelako bideoak ikasteko idatzizko informazioa baino.

Ikasleak ados daude bideoen txertapenarekin Wikipediaren barruan. Izan ere, informazio iturri erreferente bezala dute Wikipedia, eta bertan informazioa bilatzeaz gain bizkortasuna ere eskatzen dute informazioa bereganatzerako orduan. Horregatik bideoen bidez informazioa jasotzeko metodo egokia dela uste dute.

7.5. Bosgarren ikerketa-galderaren inguruko ondorioak: Zein dira hezkuntzan bideoak erabiltzearen onurak?

4. **Ondorioa:** Bideoa ikaslearen erritmo prozesura moldatzen den erreminta da. Ikasleen galdera eta zalantza kopuruen beherakada suposatzen du bideoa erabiltzeak. Informazioa bereganatzeko modu erakargarriagoa da ikus-entzunezkoa.

Ikasleek ondorioztatu dute haien usteen arabera bideoek onurak ekarri dituztela haien ikasketa prozesuari. Behin eta berriro errepikatu dute erresagoa dela eduki bat barneratzea bideoen bidez idatzizko formatuan baino. Bideoek laguntzen dutela edukiak hobeto barneratzen eta premiazkoa dela ikaslea entretenitzea ikasten duen bitartean, arreta ez galtzeko helburuarekin.

Gero eta nabariagoa da bideoen inklusioa ikasketa prozesuan positiboa dela egindako ikerketen arabera. Bideoen diseinua eta sorrera etorkizuneko irakasleen formakuntzarako baliozko erreminta dela ondorioztatu zuen Fernández-Río-k (2017):

> El diseño, creación y elaboración de videos educativos se ha mostrado como una herramienta valiosa en la formación inicial de futuros docentes: estimula el compromiso del docente y del discente, proporciona aprendizajes significativos, desarrolla competencias básicas, permite integrar contenidos de diferentes asignaturas, promueve la creatividad y ofrece más ventajas que inconvenientes en la práctica docente (Fernández-Río, 2017:125).

Bestetik, Willmot-ek (2012) ondorioztatu zuen ikasleen ulermena garatzen zela bideoei esker, eta horrekin batera ikasleen kalifikazioek ere gora egin zuten:

> There is strong evidence that digital video reporting can inspire and engage students when incorporated into student-centred learning activities through: Increased student motivation, enhanced learning experience, higher marks development potential for deeper learning of the subject, development of learner autonomy, enhanced team working and communication skills, a source of evidence relating to skills for interviews, learning resources for future cohorts to use and opportunities for staff development (Willmot, 2012: o.g.).

7.6. Seigarren ikerketa-galderaren inguruko ondorioak: Zer nolako ezaugarriak izan behar ditu bideo batek Wikipediako edukiak jasotzeko?

6. Ondorioa: Wikipediaren arabera hiru dira jarraitu beharreko irizpideak edukia txertatzerakoan. Ikasleen arabera ere hiru dira, baina ezberdinak.

Wikipediaren arabera	Edukia entziklopedikoa	Neutraltasuna	Eduki guztiak libreak
Ikasleen arabera	Informazioa era eskematikoan	Azpitituluak	Informazioa aldakorra izan daitekeela adierazi

7.7. Ondorio praktikoak eta erronkak

Interesantea izan daiteke etorkizunari begira landutako proiektua gehiago ikertzea eta garatzea; ikus-entzunezkoen erabilera Wikipedian. Feminismotik abiatuz ondorioztatu da erabilgarria dela ikus-entzunezkoaren inklusioa Wikipedian eta ikasketa prozesuan ere. Izan ere, ikasleei errazten diete edukien barneratze prozesua, eta arreta baita interesaren gorakada ere bermatu da ikerketa aurrera egin ahala.

Interesgarria izango litzateke beste hainbat gaiekin frogatzea bideo formatu ezberdinak. Feminismoarekin funtzionatu duen formatua, animazioa alegia, beste gai batzuekin ez duelako zertan funtzionatu. Beraz, gai berriak erabaki beharko lirateke eta horiekin froga gehiago egin.

Beste alde batetik, interesekoa izan liteke lehen hezkuntzako ikasleekin ere ikertzea. DBHko ikasleetara mugatzeak proiektua ez du ematen aukera gehiegi proiektuan sakontzeko, eta gaur egungo egoera ikasketa prozesuetan erreparatuz, hezkuntza bideoen inklusioa ondorio positiboak ekartzen dizkietela ikasleei bermatzen da.

Ikasleek erabiltzaile potentzialenak diren arren, irakasleek ere parte hartzen dute ikasleen ikasketa prozesuan, nahita nahi ez. Beraz, proposatzen da etorkizunari begira, irakasleekin batera bideoen garapena sustatzea. Irakasleek formakuntza espezifikoa jaso beharko lukete hezkuntzan multimedia inklusioaren inguruan, eta haien rola hezkuntza prozesuan egokitu. Izan ere, hainbat aditu bermatu dute irakasleen papera aldaketa bat jasatenari dela; ikasleen ikasketa prozesuan ikur nagusia izatetik, ikasleen laguntzaile izatera pasaz.

7.8. Horrelako proiektuak garatzeko mugak: irudien lizentzia, irudien mugak, informazio aldakorraren galera.

Hala ere, hainbat muga daude proiektu honen garapenarekin. Izan ere, Wikipediak eskatzen duen irizpide bat irudien eta informazioaren erabilera askea da. Horregatik, animazio formatua aurrera eramateko irudien lizentziak eskatzea edo irudien sormen prozesua eskatzen du, nahita nahi ez.

Bestetik, Wikipedian dagoen idatzizko informazioa editatzearen erraztasuna alde batera gelditzen da bideoen kasuan. Ezin ditu edonork editatu informazioa eguneratzeko eta horrek informazioa zaharkitua geratzeko arriskua dakar.

Hala ere, ikasleek hezkuntza bideoez hornitu dezakete Wikipedia. Haiek bete dezakete ekoizle eta eskari rola, izan ere, norberak badaki zeintzuk diren bere beharrak eta horiei aurre egiteko irtenbide egokia izan daiteke proiektu hau ikasleek garatzea.

8. ERANSKINAK

8.1. A eranskina. Ikasleei luzatutako inkesta.

Zenbat urte dituzu? *

- 12
- 13
- 14
- 15
- 16
- Beste bat...

Zein da gehien kostatzen zaizun ikasgaia ikasterako orduan? *

Erantzun luzearen testua

Zure kabuz lanak egiterako orduan, zein da lantzeko gehien kostatzen zaizun gaia (matematika, gaztelania...)?

Erantzun laburraren testua

Zeintzuk dira bideoen bitartez ikasi nahiko zenituzkeen gaiak, gero zuen ikastolako lanetan erreminta bezala erabili ahal izateko? *

Erantzun laburraren testua

Zein bideo formatuan jaso nahiko zenuke informazioa? *

- Animazio formatua (marrazki bizidunaren antzeko teknika)
- Irakasle baten azalpenak ematen formatua (irakaslea klaseko edukiak azaltzen dit...
- Dokumental formatua (documental baten bitartez Informazioa luzatu)
- "PlayGround" bideo pilulak bezalako formatua (bideo motzak informazio garrantzit...
- Beste bat...

Gai hauen artean, zein da bideo baten bidez ikasi nahiko zenuke gaia?

- Feminismoa: Zer da, nola hasi zen, borroka feminista, gaur egun.
- Emakume famatuak: Marie Curie, Frida Kahlo...
- Historia: 100 urteko gerra, Napoleonen inbasioa, Karlistak, Trantsizioa, Gerra Zibila...
- Geopolitika: Petrolioaren krisia, Estatu Islamiarra...
- Gaur eguneko gaiak
- Beste bat...

Bestelako zalantzak edo oharrak dituzu proiektu hau arrera eramateko? *

Erantzun luzearen testua

8.2. B eranskina. Ikasleek egindako bideo edukien inguruko galdetegia.

FEMINISMOAREN INGURUKO GALDETEGIA

Azalpen bideoa ikusi eta gero esan hurrengo esaldiak egia edo gezurra diren.

Jaiotzen garenetik sexuaren arabera sailkatzen gaituzte, neska edo mutil bezala, baina gizarteak ez du gure hezteko modua baldintzatzen.

- EGIA
- GEZURRA

Gizarteak estereotipoen arabera generoak desberdintzen ditu. Honekin gure pentsatzeko modua, izaera eta rolak inposatzen zaizkigu.

- EGIA
- GEZURRA

Gizarte honetan bai gizonak, baita emakumeak ere arrazionalak eta emozionalak dira.

- EGIA
- GEZURRA

Gizarteak bultzatzen dituen hainbat ideia, jarrera, jokabide eta praktika sozialak gizonezkoei eta maskulino denari abantailak ematen dizkiete.

- EGIA
- GEZURRA

Emakumeek aukera gutxiago dituzte enpresa baten buruak izateko edota goi karguetan aritzeko.

- EGIA
- GEZURRA

Urtean ehun emakume irain fisikoa, sexuala, emozionala, psikologikoa eta ondorearen biktimak dira.

- EGIA
- GEZURRA

Feminismoa: emakume eta gizonek eskubide eta aukera igualak izatea.

- EGIA
- GEZURRA

Matxismoa gizonak emakumearen gainetik dagoela defendatzen duen borroka da.

- EGIA
- GEZURRA

Gure emakume arbasoek eskubidea zuten unibertsitatera joateko, abortatzeko eta dibortziatzeko.

- EGIA
- GEZURRA

Borroka feminista: emakumeon bizi-baldintzaren hobekuntza aldarrikatzen duen borroka da.

- EGIA
- GEZURRA

SUFRAGISTAK: emakumearen boto eskubidea aldarrikatzen zuten.

- EGIA
- GEZURRA

Patriarkatua: gizonak etxeko arloan bakarrik nagusitasuna dauka emakumeen eta haurren gainetik.

- EGIA
- GEZURRA

9. BIBLIOGRAFIA

Adame Tomás, A. (2009). Medios audiovisuales en el aula. Granada. Hemendik jasoa: http://online.aliat.edu.mx/Desarrollo/Maestria/TecEducV2/Sesion5/txt/ANTONIO_ADAME_TOMAS01.pdf

Adler, B.T., Chatterjee, K., de Alfaro, L., Faella, M, Pye, I., & Raman, V. (2008). Assigning trust to Wikipedia content. In WikiSym 2008: International Symposium on Wikis. Bender, T. (2003). Discussion-based online teaching to enhance student learning: Theory, practice and assessment. Sterling, VA: Stylus.

Alexa (2016). The Top 500 Sites on the Web. Hemendik jasoa: http://goo.gl/D7O3vu

Alonso, A.; de Bilbao, I. (2016). Irakasle Eskola/Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea (HUHEZI): 40 urte Euskal Hezkuntzan eragiten. [Irakasle Ikasketak Gradu Bukaerako Lana]. Aretxabaleta: Mondragon Unibertsitatea.

Alonso Magdaleno, M.I.; García García, J. (2013). Colaboración activa en wikipedia como método de aprendizaje. RIED: revista iberoamericana de educación a distancia, 16 (1), 13-26. Hemendik jasoa: https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=4134328

Benito Amat, C. (2007). C.5. Wikipedia. Anuari ThinkEPI. Hemendik jasoa: https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=2555784

Giles, J. (2005). Internet encyclopedias go head to head. Nature, 438 (900-9001).

Bergin, J. (2002, June 24). Teaching on the wiki web. Proceedings of the 7th Annual Conference on Innovation and Technology in Computer Science Education, ITICSE'02, Aarhus, Denmark: 195.

Bertsomate (2018). In Wikipedia. Hemendik jasoa: https://wikimedia.eus/2018/01/bertsomate/

Boulos, M.N.K., Maramba, I., & Wheeler, S. (2006). Wikis, blogs and podcasts: A new

generation of Web-based tools for virtual collaborative clinical practice and education, BMC Medical Education 6 (41), 1-8.

Brown, H.D. (1989). A father's book of wisdom.

Chen, H. L., Cannon, D., Gabrio, J. Leifer, L. Toye, G., & Bailey, T. (2005). Using wikis and weblogs to support reflective learning in an introductory engineering design course. In Proceedings of the 2005 American Society for Engineering Education Annual Conference & Exposition, Portland, Oregon. Hemendik jasoa: http://riee.stevens.edu/ leadmin/riee/pdf/ASEE2005_Paper_Wikis_and_Weblogs.pdf

Choy, S.O., & Ng, K. C. (2007). Implementing wiki software for supplementing online learning. Australasian Journal of Educational Technology, 23(2), 209-226.

Calle, J. (2016). ¿Es fiable la Wikipedia?. Madrid. Hemendik jasoa: http://www.sebbm.es/web/es/divulgacion/rincon-profesor-ciencias/articulos-divulgacion-cientifica/1598-es-fiable-la-wikipedia

Deakin Learning Futures Teaching Development Team (2014). Using audio and video for educational purposes. Australia. Hemendik jasoa: http://www.deakin.edu.au/__data/assets/pdf_file/0003/179013/Modules_1-4_Using_audio_and_video_for_educational_purposes-2014-02-28.pdf

Denning, P., Horning, J., Parnas, D., & Weinstein, L. (2005). Wikipedia risks. Communications of the ACM, 48(12), 152.

Dervin, B. ; Clark, K. (1987). ASQ: Asking significant questions: Alternative tools for information need and accountability assessments. Belmont, CA: Peninsula Library System.

Dunican, R. (2011). Introduction to Wikipedia. Presented at Wikipedia Ambassador Training, Statesboro, GA.

Estadísticas (2018). In *Wikipedia*. Hemendik jasoa: https://es.wikipedia.org/wiki/Wikipedia:Estad%C3%ADsticas

Estatistikak (2017). In *Wikipedia*. Hemendik jasoa: https://eu.wikipedia.org/wiki/Wikipedia:Estatistikak

Euskal Kultura (2009, apirilak 24). Euskal Herrian 863.000 euskal hiztun daude, Eusko Jaurlaritzaren IV. Mapa Soziolinguistikoaren arabera. *EUSKALKULTURA.COM*. Hemendik jasoa: http://www.euskalkultura.com/euskara/albisteak/euskal-herrian-863-000-euskal-hiztun-daude-eusko-jaurlaritzaren-iv-mapa-soziolinguistikoaren-arabera

Euskal Wikilarien Kultur Elkartea (2018). In *Wikipedia*. Hemendik Jasoa: https://eu.wikipedia.org/wiki/Euskal_Wikilarien_Kultura_Elkartea

Evans, P. (2006, February 28). The wiki factor: BizEd. Hemendik jasoa: http://www.aacsb.edu/publications/Archives/JanFeb06/p28- 33.pdf

Fernández-Río, J. (2018). Creación de vídeos educativos en la formación docente: un estudio de caso. Revista Electrónica Interuniversitaria de Formación del Profesorado, 21(1), 115-127. Hemendik jasoa: https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=6307019

Giles, J. (2005). Internet encyclopedias go head to head. Nature, 438(70) 900-901

Konieczny, P. (2007). Wikis and Wikipedia as a teaching tool, International Journal of Instructional Technology and Distance Learning, 4(1). Hemendik jasoa: http://itdl.org/journal/jan_07/article02.htm
http://www.webcitation.org/66nYp6Xwu

List of Wikipedia/eu (2018) In *Wikipedia*. Hemendik jasoa: https://meta.wikimedia.org/w/index.php?title=List_of_Wikipedias/eu&uselang=eu

LaFrance, J.; W.Calhoun, D. (2012). Student Perceptions of Wikipedia as a Learning Tool for Educational Leaders. 137, 1-15. Hemendik jasoa: https://eric.ed.gov/?q=student+perception+of+wikipedia+as+a+tool+for+education+&ft=on&id=EJ973790

Lawley, E. L. (1999). Making sense of doctoral student attrition in library and information science. [Doktorego-tesia]. Alabama, AEB: University of Alabama.

Menon, S.; Norlidah, A.; DeWitt, D. (2014). Wikipedia in Promoting Science Literary Skills in Primary Schools. Malaysian Online Journal of Educational Technology, 2 (3), 42-47. Hemendik jasoa:

https://eric.ed.gov/?q=student+perception+of+wikipedia+as+a+tool+for+education+&ft=on&id=EJ1086406

Mesonero, M. (2006). Ikerketa-proiektuak lantzeko teknikak. Bilbo: UEU.

Ojeda de la Roza, R.; Hernández Cazorla, I. (2017). Wikimedia España y la difusión del patrimonio cultural. PH: Boletín del Instituto Andaluz del Patrimonio Histórico, 25 (91), 36-37. Hemendik jasoa:
https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=5924705

Parker, K. R., & Chao, J. T. (2007). Wiki as a teaching tool. Interdisciplinary Journal of Knowledge and Learning Objects, 3, 57-72.

Rampe, M. (2015). Educational Video Formats. Teche, Macquarie University's learning and teaching blog, Sydney-Australia. [blog testua]. Hemendik jasoa: http://teche.ltc.mq.edu.au/educational-video-formats/

Ricaurte Quijano, P.; Carli Álvarez, A. (2016). El proyecto Wiki Learning Wikipedia como entorno de aprendizaje abierto. Comunicar: Revista científica iberoamericana de comunicación y educación, 49, 61-69. Hemendik jasoa:
https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=5657978

Ricaurte, P., & Carli, A. (2016). Encuesta de percepción y uso de Wikipedia. Hemendik jasoa:
http://dx.doi.org/10.6084/m9.figshare.3409375)

Ruiz Mateo, A. (2009, urtarrilak 14). La utilización del vídeo en educación primaria. Innovación y experiencias educativas, 14 [Dialnet, testu osoa]. Hemendik jasoa:
https://archivos.csif.es/archivos/andalucia/ensenanza/revistas/csicsif/revista/pdf/Numero_14/ALICIA_RUIZ_1.pdf

Sarasa Cabezuelo, A. (2006). Usando la Wikipedia como motivación en el proceso de aprendizaje. RELATEC: Revista Latinoamericana de Tecnología Educativa, 5 (2), 433-442. Hemendik jasoa:
https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=2229238

The University of Queenland. Institute for teaching and learning innovation (2018). Pedagogical benefits. Hemendik jasoa:
http://www.uq.edu.au/teach/video-teach-learn/ped-benefits.html

United Nations (2015). Transforming our World: The 2030 Agenda for Sustainable Development. Sustainable Development Knowledge Platform. Department of Economic and Social Affairs. Hemendik jasoa:
https://goo.gl/pqYoAS

Universidad Rey Juan Carlos (2016). Guión audiovisual para vídeo educativo. Hemendik jasoa:
https://urjconline.atavist.com/guion-audiovisual-para-video-educativo

Wikipedia (2016). Wikipedia no es una fuente primaria. In *Wikipedia*. Hemendik jasoa:
https://es.wikipedia.org/wiki/Wikipedia:Wikipedia_no_es_una_fuente_primaria

Wikipedia (2018). Wikipediaren artikuluen estadistikak. In *Wikipedia*. Hemendik Jasoa:
http://es.wikicount.net/

Wikimedia Foundation (2010). Welcome to Wikipedia. Hemendik jasoa:
http://outreach.wikimedia.org/wiki/File:Welcome2WP_English_082310.pdf
http://www.webcitation.org/66ncJ2G2h

Wikimedia Foundation (2011). Using Wikipedia: Evaluating Article Quality. Hemendik jasoa:
http://outreach.wikimedia.org/w/index.php?title=File:Evaluating_Wikipedia_article_quality_2010-_11-26_(web).pdf&page=1
http://www.webcitation.org/66ncROcwZ

Willmot, P.; Bramhall, M.; Radley, K. (2012). Engineering and Design Educators Network (EDEN) Seminar Series [online]. *Loughborough University* [blog testua]. Hemendik jasoa:
http://cede.lboro.ac.uk/eden.html